



Euskalgintzan egindako lanaren saria

Dionisio
Amundarainek
Gipuzkoako
Foru
Aldundiaren
Abbadia Saria
jaso du

Goimen
sariak 2001



kirola
atsegin
duzulako

...



SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara
Igandeetan itxita
Eguerdietan larunbatetan bakarrik

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

KORTA

☎ 943 88 71 86

GABIRIA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteaz zehar eguerditan enkarguz)

Txotx denboraldia 18tik zabalik

☎ 943 80 17 57

ZERAIN



aulia

**TOLARE
SAGARDOTEGIA**

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi



Urte guztian zehar zabalik

☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

AMEBI



Sagardotegia

Txotx
DENBOTALDIA
12AN IREKIKO
DUGU

ASTELEHEN
GAUETAN ITXITA
☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9
LAZKAO

ZALBIDE

**TOLARE
SAGARDOTEGIA**

Urtarrilaren 25ean irekiko dugu
Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA



TXIMISTA

Sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA

Egunero
zabalik



Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzeraz!

☎ 943 18 01 19

ATAUN



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA

Non zer

3: HAMABOSTALDIAN NABARMEN:

Sagardo denboraldia

4-6: BERRIAK LABUR

7: **KOLABORAZIOA:** Komite
Internazionalista:
Palestinako astea

9-13: **MONOGRAFIKOA:**
DIONISIO
AMUNDARAIN, euskara
irakaslea, itzultzailea
eta zuzentzailea.

14-15: Goimen sariak 2001.

16-25: KRONIKAK:

16: Zegama
16: Zerain
17: Ataun
18: Beasain
19: Zaldibia
19: Legorreta
20: Segura
21: Idiazabal
22: Gabiria
23: Ormaiztegi
23: Mutiloa
24: Ordizia
25: Lazkao

26-27: AGENDA

28-20: DEBALDEKO IRAGARKIAK

30: FOTO ZAHARRA:

Aztiriarrak
1949an.



Txotx denboraldia hasi da *Sagardo ona omen dator aurten*

Urtarrileko aldapa eramangarriagoa egiteko aukera ematen digute sagardotegiek. Sagardo berri-berria prest dago kupeletan, barrenak goxatzeko. Txotx denboraldia martxan da. Sagardotegi batzuk dagoeneko irekita daude eta gainerakoek datozen egunetan egingo dute.

Goierrin 20 sagardotegi daude. Urrutira joan gabe, bertan duzue sagardoa dastatzeko aukera, kanpokoak beti ez baita hobea izaten eta. Sagardogileek esan digutenez gainera, aurtengo sagardoa polita dator.

Ondoan duzue sagardotegien zerrenda eta bakoitzaren telefono zenbakia, aldeztu aurretik lekua hartzea komeni izaten baita:

Amebi sagardotegia, Lazkaon:
943162523.

Aulia Tolare sagardotegia, Legorretan:
943806066.

Begiristain Tolare sagardotegia,
Ikaztegieta: 943652837.

Etxe-zuri sagardotegia, Olaberrin:
943882049.

Korta sagardotegia, Gabirin:
943887186.

Olagi sagardotegia, Alzagan:
943887726.

Otatza Tolare sagardotegia, Zerainen:
943801757.

Tximista sagardotegia, Ordizian:
943881128.

Urbarte Tolare sagardotegia, Ataunen:
943180119.

Zalbide Tolare sagardotegia,
Abaltzisketan: 943652176.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierriarrak Kultur Elkarte
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxe: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Aitziber Murua, Iñaki Ugalde, Almar Maiz, Mari Flor Mendizabal, Jose Mari Ormazabal, Andoni Sarriegi eta Goierriko Komite Internazionalista.

Fotokonposizio eta maketazioa: **GOIERRITARRA**. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 8.300 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldiakarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria**

Marixabel Lasa

Eusko Jaurlaritzak Terrorismoaren Biktimak Laguntzeko Zuzendaritza sortzeko dekretua onartu zuen abenduaren 26an. Erakunde horretako zuzendaria Marixabel Lasa da, ETAK 2000ko uztailean hil zuen Legorretako Juan Maria Jauregi sozialistaren alarguna.

Kepa Mujika kalean

Kepa Mujika Ordiziako preso aska gelditu zen abenduaren 29an. Frantzian zegoen preso Mujika eta 7 urteko kartzela zigorra bete ondoren Espainiako Gobernuaren esku uzteko beldurrez, 17 eguneko gose greba egin zuen ordiziarak.

Ordizian Alkartetxe berria

Eusko Alkartasunak egoitza berria du Ordizian, Joseba Rezola ibilbidean. Abenduaren 16an inauguratu zuten. Karlos Garaikoetxea, Rafa Larreina eta Begoña Errazti EAKo ordezkariak Ordizian izan ziren. Ekitaldian Ordiziako EAKo historikoak omendu zituzten: Elu Gaztañaga, Patxi Arteaga eta Susana Larrañaga.



Orkli kooperatiba handituz

Abenduaren 15ean, Orkli kooperatibaren eraikin berria inauguratu zen. Jose Ramon Beloki Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia diputatua eta Ordiziako eta Aramako alkateak, Alejandra Iturrioz eta Mari Jose Olazabal izan ziren besteak beste.

Aurreko egunean, beste ekitaldi garrantzitsu bat ere izan zen Orklin. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia kontseilariaren, Josu Jon Imazen, eskutik Euskalit Kalitatearen zilarrezko "Q" ziurtagiria jaso zuen Orklik. Ziurtagiri honek adierazten duenez, Orklik 400 puntu gainditu ditu Europako EFQM eredu enpresarialen parametroen arabera. Orliko ordezkariak adierazi dutenez, "Orklik azkenengo urteotan kalitatearen alorrean egindako lanaren errekonozimendua da, eta aldi berean etengabeko hobekuntzan kooperatibak egindako apustuaren aurrerapauso esanguratsua da".

500 langile inguru ditu Orklik eta 2000. urtean 14.000 milioi pezeta inguru fakturatu zituen.

Makinista postua Goimenen

Lanpostuaren eginkizunak: Traktorelari lanak betetzea, traktoreari erantzen zaizkion aperoak erabiliz; besteak beste, beso desbrozadora, rotoenpakadora.... Traktorearen eta beste aperoen oinarritzko mantenimenduaz arduratzea. Ordezkapen Zerbitzua ahal den neurrian betetzea. Beharren arabera, eskulanetan aritzea beste tresneri bat erabiliz. **Baldintzak:** 18 urte beteta edukitzea, euskara menperatzea, gidatzeko baimena eta autoa erabiltzeko aukeran edukitzea. Baloratuko diren gaiak: FP II mailako heziketa, lan esperientzia eta beste ofizio batzuen ezagutza, base-rritarra izatea, norbere kontura lan egiteko eta arduratzeko gaitasuna, eta Goierri bizitzea. **Lan baldintzak:** kontratua egun osokoa. Hasieran 6 hilabeteko iraupena duen lan kontratua. Hileko soldata garbia, 200.000 pezeta, 14 pagarekin. Belar kanpaina asteburuetan lanerako prest izatea. **Izen ematea:** Goimenen, Ordiziako Santa Maria kalea, 4. zenbakian, urtarilak 25 baino lehen.

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

 **mazda**
Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxe: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma BEASAIN

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



Manuel Barandiaran ordiziarra: Txistor lehiaketako irabazlea

Abenduaren 19an Ordizian jokaturako IV. Txistor lehiaketa Manuel Barandiaran ordiziarra irabazi zuen. 44 txistor egile aurkeztu ziren lehiaketara: Ordizia (7), Anoeta (1), Zaldibia(1), Irun (2), Donostia (3), Tolosa (5), Asteasu (1), Beasain (5), Ormaiztegi (1), Billabona (1), Hernani(1), Erreterria (2), Andoain (1), Orio (5), Segura (1), Lasarte (1), Irura (1), Zarautz (1), Legazpi (1), Getaria (1), Aia(1) y Lazkao(1). Bigarren saria Ordiziako beste harakin batek irabazi zuen, Nikolas Lasak; hirugarrena Beasaingo Montoya harategiak.

Eguberrietako Azoka berezia

Abenduaren 26an egin zen Eguberrietako azoka berezia Ordizian; urteko azkeneko azoka berezia. Eguraldia ez zen oso lagun izan, izotz handia egin baitzuen. Ondorioz, hainbat baserritar etxean gelditu zen. Dena den, kalitatea nagusi izan zen aurrean ere. Jarraian dituzue sarituak:

Plazako baserritarren sariketa: 1: Montes (Ibarra), 2: Edurne Jauregi (Baliarain), 3: Jesus Artola (Anoeta) eta M. Eugenia Agirretxe (Berrobi).

Fruitu lehiaketa: 1: Manu Iradi (Hernani), 2: Maria Etxezarreta (Gabiria) eta 3: Jesus Artola (Anoeta).

Errexil sagar lehiaketa: 1: Manu Iradi (Hernani), 2: Maria Etxezarreta (Gabiria) eta 3: Gregorio Mujika (Olabe-
rria).

Fruitu lehorrak: 1: Juana Lazkano (Gabiria).

Irene Laffite pintorea hil da

Ordizian bizi zen Irene Laffite margolari donostiarra abenduaren 20an hil zen. Pintore espresionista, gaixotasun luze baten ondoren hil zen 70 urte zituela. 1974 etorri zen Paristik Ordiziara bizitzera, bere lehenengo senarra hil zenean. Gipuzkoako Pintoreen Saria jaso zuen urte hartan. 1982. urtean bere baserri-estudioak su hartu zuen eta 27 pintore eta eskultorek elkartasunezko erakusketak antolatu zituzten Donostian eta Ordizian. 1996an, Kutxak, Irene Laffiteren 50 lan baino gehiago bildu zituen erakusketa antologikoan.

Patxi Ezkiaga: 'Bigarren haurra'

Legorretako idazlearen 'Bigarren haurra' eleberriak irabazi du Euskaltzaindiak eta BBK-k antolatutako Txomin Agirre eleberrri lehiaketa. Ezkiagak, Euskal Herrian azken 25 urteetan gertaturikoari buruz hainbat ikuspegi eta irizpide kontrajartzen ditu liburuan, konponbidea barkamenaren bidez helduko denaren ondorioa iritsiz.

Gema Arrugaeta: Gipuzkoa, Parke Naturalak

Ordiziako argazkilariak Kutxaren eskutik, 'Gipuzkoa, Parke Naturalak' liburua kaleratu du. Aralar, Pagoeta, Aiako Harria eta Aizkorri parke naturalak biltzen dira argazkitan liburuan.



X. Aterpe pintura lehiaketan Mila Garmendia irabazle

Arrasateko Mila Garmendia Zeberioak irabazi du Beasaingo Aterpe tabernak antolatzen duen pintura lehiaketa. Beste bost artisten lanak ere finalerako sailkatuak izan dira: Oscar Barrera (Lasarte), Maria Castilla (Tolosa), Mare Arrizurieta (Leitza), Maider Urretabizkaia (Lazkao) eta Antxon Mendizabal (Donostia).



AUSGEGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✱ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✱ Berogailuak
- ✱ Iturgintza
- ✱ Zeramika erakusketa
- ✱ Bainuko altzariak
- ✱ Erreforma osoak



Erramun Irastorzaren abentura berria: Marokon bidaia globoan

Erramun Irastorzak Billabonako mutil bat, Urko, ezagutu zuen eta San Ferminetan gonbidatu zuen entzierroaren garaian globoan ibiltzera. "Marokora bidaia bat prestatzen ari zela esan zidan, nirekin kontatzeko esan nion. Lau lagun elkartu ginen eta hala joan ginen azaroaren erditi abenduaren erdialdera. Elkarren artean ez ginen ezagutzen baina oso ondo konpondu gara elkarrekin", dio Erramunek.

Hegaldiak Marokoren hego ekialdean egin zituzten. Land Roverra eraman zuten, 350 kilo pisatzen dituen globoa atzera eta aurrera eramateko. Ordu bete edo bi orduko hegaldiak egiten dira globo mota horietan. Denbora gehiago ibiltzen diren globoak askoz ere garestia goak izaten dira.

Globoaren norabidea haizeak bideratzen du, ez dago modurik norabidea zuzentzeko. "Inprobisazio dezente dago. Globoaren lanik handiena aurreikustea da. Globoan igo aurretik, egoera aztertu behar da, gutxi gora-behera zein haize egongo den neurtzen da. Helioz betetako globoarekin neurtzen da. Askatu eta zein haize erreakzio dauden ikusten da. Batzutan, altueraren arabera, norabide ezberdineko haize kapak egoten dira. Momentuan aztertu behar da egoera".

Orografia ere aztertu beharra dago. Lurra hartzeko lekua behar da. Land Roverra ustez globoa lurreratuko zen lekura eramaten zuten. Askotan autoa bilatzeko komeritan ibili ziren, desbideratu egiten baitzen. Irrati bidez, globotik adierazten zieten autoaren gidariari nondik nora zebiltzan.

Beraz, ezin da bidaia aurrez ondo zehaztuta eraman. Abentura da. "Asko go-



zatu dut. Ohituta airean ibiltzen, egoera gogorak, estresagarriak bizi izaten, eta globoan bare-bare, lasai-lasai, goitik dena ikusiz, oso gozagarria izan da". Al-tuerarik handiena, 2.000 metrokoa harra-patu zuten, lurretik 1.000 metro.

Hegaldi kautiboak ere egin dituzte. Hau da, sokarekin lotuta hega egitea. Marokoa ibili zituzten globoan.

Bideo kamaraz irudiak grabatzen aritu ziren. Saskitik zintzilik jarri eta globoa eta bertako bidaiariak ahalik eta urrutietik grabatzeko.

Aurrera begira

Aurrera begirako planak egiteko aukera izan dute. Aurtengo neguan, Aralar alde-rik alde globoz zeharkatzea dute hurrengo ametsa. Gipuzkoak arazoak ditu gauza asko baitaude kontzentratuta: klabeak, errepideak, herriak... Lur hartzeko arazoak daude. Desbideratuz gero lur hartzeko leku alternatiboak ere bilatu behar dira eta zaila da Gipuzkoan. Baina Nafarroa aldean arazo gutxiago ikusten dute eta egitas-moa ilusioz ari dira aztertzen.

Josune Bereziartu

Goierritar eskalatzaileak marka guztiak hausten jarraitzen du. Munduko emakumezko eskalatzaile onena izendatu du News&Numbers aldizkariak. Honez gain sailkapen orokorrean (gizonezko eta emakumezkoak biltzen dituen) 2. postuan geratu da David Graham estatubatuarren ondoren. Eskalada espezialitate guztiak kontutan hartzen dira sailkapena egiteko.

Amaia Insausti

Olaberriko atletak maratoni erdiko Euskadiko txapelketa irabazi zuen, abenduaren 23an, Gasteizen. 21,097 kilometroetan 1:20:07 denbora egin zuen Amaiak.

Zugaitz Ayuso


Itsasondan bertan, abenduaren 30ean, jokatu zen Euskadiko zirklo-kros txapelketan 2. postua lortu zuen Zugaitzek. David Seco bizkaitarrak lortu zuen txapela.

Aritz Zeberio

Zaldibitar erremontistak, Etorkizuneko Gazteen Txapelketa irabazi zuen Badiola azpeitiarrarekin. Finallean 40-26 menperatu zituzten Agirresarobe eta Aizpurua.

Beasaingo San Silbestrea

Beasaingo lasterketa ezaguna Davik Kime ikeniarrak irabazi zuen. Emakumezkoetan Aloña Gonzalezentzat izan zen garaipena.



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:

AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.



Palestina: bere lurraldean burujabe izateko eskubidea

Palestinako astea

Komite Internazionalistak taldeak antolatuta, datorren hilaren 7tik 12ra Palestinari buruzko astea izango da Ordiziako Barrena Kultur Etxean. Egitaraua hauxe izango da:

- ✓ Aste osoan erakusketa sarrrerako aretoan egongo da.
- ✓ Ikasleei zuzendutako bisita gidatuak.
- ✓ Asteazkenean, arratsaldeko 7etan Thamer Birawik, palestinar erbesterratuak, zuzenduriko hitzaldia.

Goierritarraren azken ale hau jasotzean, bukatuta izango da Goierriko Komite Internazionalistek eta Palestinako Lagunek égin-dako Palestinari buruzko astea. Hiru izan dira antolatutako ekintzak: Barrena Kultur Etxean erakusketa aste osoan, asteartean Thamer Birawik (palestinarrerbesterratuak) emandako hitzaldia, eta bai Jakintzako, bai Oiangurenereko ikasleei zuzendutako bisita gidatua.

Azken hilabete hauek munduan izan diren gertaerak bereziak izan direla

ezin da ukatu. Egunero irakurri ahal izaten dugu Afganistanen edo Palestinan gertatzen ari dena, inpotentzia sentituz hasieran eta azkenean axolagabekeria etsita. Telebistak irudi harriarriak ematen badizkigu ere, dena urruntasunean ikusten dugu. Nolabait Palestina gerturatzeko asmoz, arestian aipatu astea antolatua genuen. Bertako irudi, jantzi, usai eta Thamer Birawik-en hitzek gerturatu gaituzte herri palestinarrera. Honela jakin izan dugu Palestina ez dela konfliktu bakarrik, herri bat baizik.

Ezin da Palestinan gertatzen ari dena lau hitzetan laburbildu, baina datu esanguratsuak aipatuko ditugu:

- ✓ 1947an Israelgo estatua sortzen dute Palestinan etorkin juduek.
- ✓ 1948an Palestinako lurraldearen %78an bizi ziren 900.000 palestinar euren etxetatik bota zituzten. Gaur egun 5 milioi errefuxiatu daude.
- ✓ 1967an, Sei Eguneko arabiar-israeldar gerratean, Frantziak eta Ameriketako Estatu Batuek hornitutako armez, Israelek lortu zuen ga-

raipean. Harrezkero, Israelgo armadak Palestinako lurraldea okupatua du.

- ✓ Bigarren Intifada 2000ko irailean hasi zen, Lurralde Okupatuetan berezko herri-ekimenaren gisa ondoko bi kontsignek bat egiten zutela: Israelgo okupazioaren aurka eta Osloko akordioaren aurka.

- ✓ Iazko irailetik ia mila palestinar hil dituzte Israelgo armadak eta kolonoek.

- ✓ AEBen sostenguak Israelgo potentzia militarra mantentzen du. Joan den urteko urrian emandako 3.000 milioi dolarrak batzen dira urte horretan bertan emandako kopuru berdineko diru laguntzari.

Bukatzeko, azpimarratu behar dugu, herri palestinarrek ez duela eskatzen bizi baldintzak hobetzerik, ezta limosnarik ere. Bere lurraldean burujabe izateko eskubidea aldarrikatzen du.

Palestinako Lagunak.
Goierriko Komite
Internazionalistak.

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako baimenak:
B, B+E, C, C+E, D, D+E, A1 eta A

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Marlarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

berriz aranburu ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elhargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

idazle gaztea

**Galtzagorri Elkartek eta Euskaldunon Egunkariak,
Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesaz, Idazle gaztea
literatur lehiaketara dei egiten dute.**

OINARRIAK

✓ Norentzat

Lehiaketan parte hartzerik izango dute Gipuzkoako ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ari diren ikasleek.

✓ Sailak

Lehiaketak bi sail izango ditu: narrazio laburrak eta poesia. Ikasle bakoitzak gehienez lan bana aurkez dezake sail bakoitzean.

Narrazio laburretan gehienez 3 orrialdeko (6.000 bat letragune) lanak onartuko dira. Poemetan, gehienez 90 lerroko lanak.

✓ Kategoriak

Lehiaketaren sail bakoitzean bi kategoria bereiziko dira: A kategoria, DBHko lehen zikloko ikasleena; B kategoria, DBHko bigarren zikloko ikasleena.

✓ Lanak aurkezteko era

Lehiaketan parte hartzeko idazlanak ikastetxeak aurkeztu behar ditu, ikasleen izenean. Ikasgela bakoitzetik gehienez 5na idazlan onartuko dira sail bakoitzean.

Idazlanak aurkezteko epea 2002ko otsailaren 2an amaituko da.

Lan guztiak goitizen batez izenpetuko dira, baina bidaltzerakoan egilearen izen-deiturak, ikastetxearen izena eta ikasmaila ere azaldu behar dira. Datu horiek isilpean gordeko dira sarien erabakia aditzera eman arte.

Idazlanak posta elektronikoz bidali behar dira helbide honetara: galtza.hgl@euskalnet.net

✓ Hautapena

Jasotako lan guztien artean 10 lan hautatuko dira sail eta kategoria bakoitzean. Hautapen batzordea osatuko dute Galtzagorri Elkarteen ordezkari bik eta Euskaldunon Egunkariaren ordezkari bik.

✓ Bozketa

Batzordeak hautatutako lanak Euskaldunon Egunkariaren web orrian agertuko dira (<http://www.egunkaria.com/literatura>), 2002ko martxoaren 4tik aurrera.

Euskaldunon Egunkariako irakurleek botoa emanez aukeratuko dituzte sail eta kategoria bakoitzeko hiru lan irabazleak. Pertsona bakoitzak boto bakarra emateko eskubidea izanen du, 2002ko maiatzaren 15a bitartean.

✓ Sariak

Idazleentzat: lehiaketako sail eta kategoria bakoitzean sari nagusi bat eta bi sari osagarri izango dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak emanak.

Irabazleen lanak Euskaldunon Egunkarian argitaratuko dira.

Irakurleentzat: bozketan parte hartutako irakurleen artean sari bat zozketatuko du Euskaldunon Egunkariak.

Saridunak 2002ko maiatzaren 23an emango dira aditzera «Liburu Gaztea» programaren barruan Gipuzkoako Foru Aldundian egingo den saioan.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua



Egunkaria

Dionisio Amundarain: bizitza osoa euskalgintzan

Abenduaren 20an Gipuzkoako Foru Aldundiak Anton Abbadia Saria eman zion Dionisio Amundaraini. Goierritar ugari bildu zen sari emate ekitaldian, Dionisiok Goierriko euskalgintzan egin duen lanaren erakusle. Goierritarrak Kultur Elkarteko lehendakaria ere izan genuen. Baina, nor da Dionisio Amundarain?

Dionisio Amundarain Itsasondan jaio zen 1930ean, hamaika anai-arrebako sendian. Bost-sei urte zituenean baserriko lanetan laguntzen hasi zen, batez ere ardiak zaintzen. Hamar urterekin Lazkaoko Beneditarren komentura joan zen, inork behartu gabe, bere gustuz. Oinarrizko Heziketa, nobiziatua eta gaineratiko ikasketak bertan egin zituen, gustura egin ere. Parise-ra joan eta urtebetez Teologia ikasten jardun zuen. Ondoren beste urtebete Erroman, Filosofi gaiak sakontzen.

Estibalitzen hiru-lau urtetan egon ondoren, Lazkaora itzuli zen, euskararen munduan erabat murgildu eta klaseak ematen eta itzulpenak egiten hasi zen. Klandestinitateko lanak ziren euskararen inguruan egindakoak, baina komentuko giroa euskararen aldekoa zenez, arras, lagun izan zuen bere zereginetan.

50.eko hamarkadan euskararen munduan erabat murgildu zen. Elbira Zipitria izan zuen lehen irakasle, 1952-1953 ikasturtean, igandeetan, Meza Nagusiaren ondoren es-

kolak ematen baitzizkien taldetxo bati. Orixe idazlearen idazlanak irakurriz, berri, euskararen muina eskuratu zuen.

Euskara-irakasle, material-sortzaile, idazle eta itzul-tzaile, besteak beste. 1966an "Jaunaren Deia", komentuko aldizkarian, argitaratu zuen bere lehenengo itzulpena. Hortik aurrera elizako otoitzak euskaratu zituzten, Etor Argitaletxeko liburuak zuzentzen hasi ziren eta beste hainbat lanetan aritu ziren.

1974an Donibane Lohizuneko Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroetan izan zen. Handik bueltan, Lazkaoko komentuan lehenengo alfabetatze-ikastaroak ematen hasi ziren eta hurrengo urtean Udako Ikastaroa antolatu zuten. Bultzatzaile nagusi Dionisio bera izan zen.

Didaktika eta pedagogia mailan autodidakta izan ziren, euskararen irakaskuntzan aurrez egindako lanik, beste esperientziarik, ez baitzen. Batetik eta bestetik sortzen ari ziren metodo eta lan eskasak hartu eta beren beharretara egokitzen zituzten.

Goierriko Gaueskolak sortu zituen. Maizpide Euskaltegi-Barnetegiaren bultzatzaile nagusi, Zuzendari, irakasle eta arduradun nagusi. Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartearen sortzaile. Gerriko Ikerlan Sariketa, orain Ikerlan Beka bihurtutakoaren sortzaile, 1989an, eta ondorengo 10 edizioetan hizkuntza zuzentzaile eta laguntzaile. Gerriko Txokoa, Gerriko Taberna eta Gerriko Liburudendarren sortzaile eta bultzatzaile nagusi.



"Pozik handiena euskaldunak sortzea eman dit"

- Egin duzun lan guztien artean zerk bete zaitu gehien?

- Maizpide martxan ikustea, Beasaingo euskaltegiarekin eta Ordiziako AEKrekin batera. Maizpide erreferente handia da, ez Gipuzkoan bakarrik, Euskal Herri guztian baizik. Munduan zehar ere bai, jende asko etorri da euskara ikastera, Hego Amerikatik, Ipar Amerikatik, Japoniatik, Holandatik... Bertan hain-

beste jende euskalduntzen ari dela ikustea oso pozgarria da. Ez da berriketa urtean, batz best 125-150 euskaldun berri ateratzea. Itzulpegintzan, Biblia itzultzeak asko bete nau. Liburu Zuria itzultzeak ere bete ninduen eta Holandako doktrina itzultzea ere atsegin handiz egin nuen.

- Euskaltzale bati zer ematen dio minik handiena? Eta pozik handiena?

- Pozik handiena, euskaldunak sortzea eta euskaldun izateaz gainera kontzientzia pizten dela ikustea. Minik handiena, euskara ikasi bai, baina derrigorrez ikasten dutenak, batez ere lanak eskatzen duelako. Ez nago kontra euskara ikastea lanak behartzen duelako, baina kontzientzia ez hartze horrek min ematen dit. Maizpidetik pasatu diren guztiek euskararekin zer egin duten jakitea ere interesgarria litzateke. Kezka edo galdara ikurra hor legoke. Euskara jakin bai eta erabiltzen ez dutenek ere min handia egiten didate. Hiru edo lau lagun bildu, txakurrari eta haurrari euskaraz egin eta helduen artean erdaraz egitea izugarria da. Ez bakarrik euskararen kontra dagoelako, baizik eta pedagogia guztien kontra dagoelako. Umeari euskara txikitako gauza dela adierazten zaio.

- Zer sentitu zenuen Anton Abadia saria jasoko zenuela esan zizutenean? Eta jaso zenuenean?


- Lotsa pixka bat sentitu nuen. Sekula ez zitzaidan burutik pasatu horrelako sari bat hartu behar nuenik. Ikusirik beste batzuk nik baino merezimendu gehiago izango dituztela, nik zergatik, nik zer egin dut. Euskara eraberritzeko lana nabarmendu dute. 1967an buru belarri horretan hasi nintzenetik gelditu gabe aritu naiz. Ia eskusiboki euskara izan dut nire jo puntua. Beste gauza guztiak utzi eta era batera edo bestera horretan aritu naiz. Lanetik ezagutu ditudan lagun asko joan ziren, Lazkaoko eta Goierriko ezagun asko.

Dionisio Amundarain: etengabe euskara berreskuratze-lanean

- Euskararengako kontzientzia noiz edo zeri-nori esker sortu zitzaizun?

- Etxean gu beti euskaldunak izan gara. Gurasoek ez zekiten erdararik, euskara besterik ez. Komentuan hausnarketa eginez irakurtzen hasi ginenean, gure eskutara abertzaletasunari buruzko liburuak iritsi ziren. Giro berezia sortu zen, internaduko lagunon artean. Orixeren liburu batzuk eskuratu genituen... Ez nuke noiz esango, pixkanaka hasitakoa izan zen. Francoren garaian bizi ginen eta beti gertatzen den bezala, kontra egitea, sortzen den erreakzioa ere izan zen. Euskararen kontra zegoen eta giro haren kontrako erreakzioa izan zen. 1952-53 ikasturtean, apaiz eginda edo egiteko momentuan, Elbira Zipitriak aditzaren sistema erakutsi zigun eta hark ere bere tantotxo ere sartzen zuen.

Parisera joan behar izan nuen urtebete. Bagenuen bai herri kontzientzia nahiz eta kanpoan egon. Batek hala galdetu zidan: zuek euskaldunok zergatik zarete nazionalistak eta separatistak? Bat-batean, zera erantzun nion: zuek hemen Alemanen menpe egon zinetenean zergatik jaiki zineten haien kontra gerran? Besterik gabe isildu zen. Handik etorri nintzenean beste lan batzutan aritu behar izan nuen eta euskarako lanak bazterrean utzi. Erromara joan, handik itzuli... 1967an hasi nintzen itzulpenak egin eta eskolak ematen. Komentuan hasi ginen. Geroago, Pax etxean, Goierrin... pixkanaka zabaldtu zen gure alfabetatze lana.



“Euskara mintzatuaren kalitatea asko jaitsi da, beste hizkuntzetan bezala”

- Gau eskolak sortu ziren. Nola izan zen prozesua.

- Lehenengo alfabetatzen hasi ginen, euskalduntzen geroago. Ikastolak hasi berriak ziren. 1974an Donibane Lohizuneko Udako Unibertsitate-ra joan eta han Joxe Manuel Odriozolak esan zuen haurrak euskaraz ikasten ari zirela eta gurasoak ez zirela alfabetatuak eta seme-alabei laguntzeko aukerarik ez zutela. Hasia zegoen alfabetatze mugimenduari zergatik indarra ez eman planteatu zuen Odriozolak. Rikardo Arregi eta alfabetatzen eta euskalduntzen hasi zirenean, beti ere Euskaltzaindiaren izenean egin zen, babesteko. Talde partikularrek ezin zuten funtzionatu, hiru edo lau taldeak susmagarriak baitziren. Baina jendeak euskaraz irakastearekin batera gai sozial eta politikoak ere erakusten ziren eta

Euskaltzaindiak ez zuen hori begi onez ikusi. Euskara ikastea bakarrik jarri zuen baldintza, gai sozialak alde batera uztea. Orduan Gipuzkoan gain behera etorri zen alfabetatzea, ezkutatzera.

1974an Donibane Lohizunen bildu ginenean, berriz ere lanean hastea erabaki genuen. Bilera bat antolatu genuen Aretxabaletan eta herri gehienetatik ordezkariak joan ziren eta hala jarri genuen berriz ere martxan alfabetatze mugimendua. Indartsuena Goierrin izan zen. 1975ean udan lehenengo euskal ikastaroa egin zen, 20-21 lagunekin, komentuan bertan, alfabetatzen. Urtean zehar ere eman genituen eskolak eta hurrengo udan 75 lagun etorri ziren. Aurrera gero eta gehiago 150, 500...

- Gau eskoletatik Maizpiderako bidea nolakoa izan zen?

- Laster konturatu ginen oso

zaila zela asteen lau ordurekin euskalduntzea. Orduan, ikastaro trinkoen atzetik hari ginen. Lehenengo udakoak eta gero urtean zehar, batez ere Lankide Aurrezkikoekin eta Kutxakoekin. Ikasleak etxe partikularretan zituzten logelak. 1979an lehenengo proiektua egin zen etxebizitzak hartu eta logelak prestatzeko, zailtasunak ikusten hasi baikin. Pax etxearen atzealdean zegoen etxe bat hartzea zen asmoa, obra txiki bat eginda. Komentuarena ziren bi pisu. Baina euskararekiko oso beroak ez ziren batzuk azaldu ziren eta proiektua bertan behera gelditu zen.

Handik urtebetera, udako ikastaro batean izan ziren Txabarri eta Amatiño, garai hartan Habeko arduradunak zirenak. Haiek esan ziguten Goierrin zergatik ez barnetegi bat. Batzarra egin eta onartu egin zen. Lazkaon barnetegia egin eta beste herri handietan, Ordizian eta Beasainen euskaltegi bana jartzea zen asmoa. Artean ez zen udal euskaltegirik aipatzen. Barnetegia Lazkaok eta Ordiziak nahi zuten. Beasainek berehala amore eman zuen, lanik handiena Lazkaon egin zela esanez. Ordiziakoek Ordiziaran eraman nahi zuten. Atzeratu egin zen proiektua. Azkenean Lazkaon egitea erabaki zen.

1986an Maizpideren lehendabiziko harria jarri zen. Barnetegia egin bitartean nola ezin genuen etsi eskolarik eman gabe, Txabarriarekin hitzarmena egin eta lokalak hartzen hasi ginen eta logelak alokatzen. Gerriko etxea erosteko aukera ere etorri zitzaigun.



“Lazkaon euskararen aldeko kontzientzia teorikoa badago baina praktikoa falta da”

- Eskolaz kanpoko ekintzei garrantzia handia eman izan diozue beti.

- 1982an hasi ginenean urtean zeharreko barnetegia antolatzen, Habeko hiru lagun eta ni Israela joan ginen hebreara nola irakasten zuten ikustera. Han konbentzitu ginen klaseekin bakarrik ez zela hizkuntza bat ikasten. Han hebreara ikasten zuten, egun guztian murgilduta bizi zirelako ikasleak hebreeraren munduan.

Nahiz eta alokatutako etxeak izan, ez zegoen gaur adinako erasotasunik. Beraz hori guztia lortzeko txoko bat behar genuela ikusi genuen. Gerriko txokoa eta taberna sortu ziren, euskalduntzen ari zen jendeak harremanak izan zitzaizkien herriarrek. Hasieran mus txapelketak antolatzen hasi ginen, gero herrian jaialdiak egiten, klaseetara herriko jendeak eramaten, Jose Mari Soroa, Andres Barandiaran.... afaltzera bertsolariak eraman... Beharrezkoa ikusten zen ikasleak herriko hizketara ohitzeko eta bestetik euskaraz aritzeko egun guztian, klasetik kanpo ere euskaraz egin zezaten. Hori lortu genuen.

Baina herriko jendeak ez du izan nahiko pazientziarik euskaldun berriekin jarduteko. Euskaldun berriei esan

izan diote, lehenengo euskaraz ikas ezazue eta gero hitz egingo dugu. Noski, jende horrek ez zekien euskaraz ikasteko hitz egin behar zela. Maizpide sortu zenean, ikasleek joera izan dute bertan gelditzeko, bertan baitituzte baliabide handiak. Gerrikora joateko joera gutxiago dute eta harreman gutxiago dituzte herriarrek.

- Lazkao euskararekin lotzen da. Euskarak zer zor dio Lazkaori?

- Jende askorentzat erreferente izan da Goierriko Euskal Eskola, Gerriko eta Maizpide, nahiz eta gero asko eta asko erreferente teoriko horrekin gelditu. Adibide bat: matrimonio bat bere umeei, beste bikote bat hurbildu zitzaizkien, agurrak euskaraz egin, haurrekin euskaraz egin baina beraien artean erdaraz egitea. Holakoak gertatzen dira, jende edadeko samarraekin. Badago beste fenomeno bat, lagun talde batean nahikoa da batek euskaraz ez jakitea, guztiak erdaraz hitz egiteko. Orduan kontzientzia teorikoa nik uste lortu dela Lazkaon, baina beste kontzientzia praktikoa hori falta dela esango nuke. Bestela, ekonomikoki aberasgarria izan da, herriko merkatarientzat eta 30 lanpostu ere sortu dira Maizpideri esker.

Euskara itzultzailea eta zuzentzailea:

“Askotan, zuzentzea, itzultzea baino zailagoa da”

- Itzultzaile lanean ere lan handia egin duzu.

- Hasieran komentuan nengoenean, Kontzilio ondoko urteetan, aurrez latinez egiten ziren otoitzak hizkuntza ezberdinetan egiteko aukera etorri zen. Orduan Aita Alberto zenak eta biok aritu ginen itzulpen lanean. Beroketa lana izan zen. Gero hasi ginen bestelako liburuak itzultzen. Martin Ugalderen nobela, Siadecok egin zituen liburu batzuk. Gerora, 1979an talde bat Biblia itzultzen hasi ginen eta hark ere denbora asko hartu zidan. Ikastaro trinkoetan hasi ginenean itzulpen lan gutxi egin nuen astirik ez nuelako. Maizpiden sartu ginenean, pixka bat lasaixeago, lan gehiago itzuli nuen. Jubilatu naizenez gero, gehiago. Baina horrezaz aparte, oso garaiz hasi nintzen zuzentze lanak egiten. Etor argitaletzeko Julen Lizundiari behin kritika egin nion euskara aldetik ez zegoela oso ondo eta haren erreplika izan zen eta zuzentzen hasiko ote nintzen eta nire ausardia guztiarekin baietz esan nion. Gero entziklopediak zuzentzen hasi nintzen. Itzulpen lanetan Liburu Zuria ere itzuli genuen, Euskaltzaindiak bultzatuta.

- Zer da zailagoa itzultzea ala zuzentzea?

- Zuzentzea askotan itzultzea baino zailagoa izaten da. Itzultzailearen arabera egoten da askotan. Itzultzaileak askotan esperientzia gabekoak izaten dira eta itzulpen lanak ez dira horrela egiten. Gauza bat da liburu batek itzuli eta hura zuzentzea, eta bestea, jende askok itzultako liburuak zuzentzea, batasuna eman behar baitaio.

- Euskararen kalitatea zer moduzkoa da?

- Askok hobetu da. Hala ere esan behar da, askotan geure burua engainatu egiten dugula. Argitaletxe bakoitzak bere zuzentzailea dauka. Orduan zein den jatorrizkoa eta zein den zuzendua, distortsioa sortzen da. Ezustekoak eraman ditut: ustez oso ondo idazten zuten pertsonen idatziak zuzendu behar eta ezustekoak eramatea. Idatziaren kalitatea nik uste dut nahikoa ona dela. Euskara mintzatua hala ere uste dut asko jaitsi dela, beste hizkuntzetan bezala. Oso baliabide gutxiarekin egiten dugu egin beharrekoa. Beste hizkuntzekin ere berdina gertatzen omen da eta aztertzeko litzateke zergatia. EGAKo azterketak zuzentzen nituen ere gaztetxo jendeak oso euskara pobrea zuen. Harrituta gelditzen ginen. Zer esanik ez, Jaurilaritzan egon nintzenean, lehiaketa-azterketak egiten genituen, askotan harrituta gelditzen ginen lizentziatu jendeak zein euskara maila kaskarra zuen. Gaur egungo munduko fenomeno izan behar du.

- Gasteizko Administrazioan ere aritu zinen lanean, IVAPen. Aldaketa handi samarra izango zen, ezta?

- Bai, esperientzia gogorra izan zen niretzat. Aldaketa alde guztietatik. Lagunartea ez zen hemen bezain beroa, euskara aldetik ere ez hain emankorra, erdaraz jardun beharra askotan. Orduan nik Jaurilaritzarekin nuen irudia euskararekiko, lausotuta gelditu zen. Batez ere laneko giro oso ezberdina. 8 ordu sartu eta ki-to. Horretaz aparte, detailetxo bat: azterketa baterako gaia pentsatu nuen, gai bat eman eta ‘kritika egin ezazu’. Kritika hitza kentzeko esan zidan zuzendariak, arrazoirik eman gabe, kendu behar izan nuen. Horrelako nagusikeriatxoak ere bazeuden.

Zer da Dionisio Amundarain Maizpiderentzat

Maizpide euskaltegia GEEren oinordekoa da euskararen irakaskuntzan. GEE, izenak berak dioen bezala, Goierri osoan euskara irakasteko sortutako erakundea da.

Egoera politikoa aproposago bihurtu zenean herri-erakundeek garai hartan ohiko zuten bidetik jo ordez, indarrean zen gizarte-erakunde baten lehiakide desleial izango zen paralelo bat sortu ordez, lanean ziharduen harekin hitzartu eta are eraginkorrago bihurtua izan zedin lagundua izan zen. Herri-erakundeen eta gizarte-erakunde baten arteko elkarlanaren fruitu erdugarria da Maizpide euskaltegia.

Eta zer da Dionisio Maizpiderentzat? Dionisio, gizarte-erakunde indartsu bat, bere nortasunik galtzen utzi gabe, herri-erakunde sortu berriekin hitzarmena medio, enpresa eraginkor bihurtu zuen birtartekoa da. Ez zuen oraintxe esan Lazkaoko gizon ezagun batek (txoferrareneko Jabier zenak): "holakok gehiau balie...!"

Eta hain gauza sinplea dirudien hori izugarrizko meritua da. Euskal Herriaren zati honetako historia berria bizi izan dugunok badakigu zein zaila den honelako akordio bat. Trebezia dialektiko aparta erakutsi zuen batzuekin eta besteekin egon eta guztientzat komenigarria izango zen akordio bat eskuratzeko.

Hori Maizpideren historiaurreari dagokiona eta gauzak beren testuinguruan errazago ulertzen direnez, argitu beharrekoa.

Bi erakunde horien hasierako jarduera nagusia euskararen irakaskuntza zen. Ha-



sierakoa diot, gaur egun GEEk kultur eragile gisa jarraitzen duelako eta euskararen irakaskuntza-arloa Maizpidek hartua duelako.

Euskaltegi batena bi osagaiko jarduera gisa ulertzen zuen Dionisiok eta hala ulertzen dugu egungo Maizpiden ere: enpresa-jarduera eta irakaskuntza alorra. Bietan erakutsi zuen Dionisiok pentsakera aurrerakoia eta garaia aurreratua.

Enpresa-antolieran gaur egun kudeaketa-ereduagatik sarituak diren enpresen oinarriak hauek dira: irabaziak eskuratzeaz gaindiko helburu edo eginkizun bat, antolera eraginkor eta eginkizun horrekiko koherentea, beren ekoizpenaren protagonista nagusia bezeroa izatea, enpresa-proiektuko kide diren guztiak hartan konprometituak izatea...

Gogoan dut, egun batean, ostiraletako bileran, irakasle hasi berriek beren buruak historikotzat azaltzen ote zituzten kezka nola adierazi zigun. Haietan izango nintzen ni ere, hasi berrietan bai behintzat, eta sekula inori eskarmentu handia genuela erakutsi bagenion, ez zen harrokeria edo

handi-ustea, geure proiektuarekiko erabateko identifikazioa baizik.

Antolera eraginkorra? 5000 biztanleko herri batean, bat-batean, 500 ikasle sartu eta euskara ikasten gustura edukitzeko, beharko antolamendu ona izan, herriko ikastetxe, etxe-behe, familietako logela libre guztiak betetzen genituenean, Pagosako kamioiarekin "traste-karreo" txofertzan trebatu ginenean herriko kale-zuloetan nahiz Artaxonara ardotara bidean...

Bezeroa protagonista? Egin den guztia ikaskuntza hobetzeko egin da, ikasleari zerbitzu hobea eskaintzeko. Ikaslearentzat barnetegiak eskain dezakeen zerbitzurik onena 24 orduz euskaraz biziitzeko prestatua egotea da eta horrelaxe antolatu zuen barnetegi Dionisiok eta horrelaxe jarraitzen dugu Maizpiden.

Eta bigarren osagaian, euskararen irakaskuntzan, gaurko kurrikulugileak oharatu dira eskolaren eta gizartearen arteko etena dela ikaskuntza-mota guztien arazo kezagarrienetakoa eta hasiak dira arazo horri nolabaiteko irtenbide bila. Ez ziren orain-

txe hasi Joxe Mari Soroa eta Andres Barandiaran barnetegiko ikasleekin afaldu eta elkarrekin hitz-aspetu bat egiten, eskolako eta gizarteko hizkuntzaren artean zubia eginez.

Maizpideko sukaldariak eta garbitzaileak ez dira lana ondoen eta merkeen egiten dutenak bakarrik, hirugarren aldagaia ere hor dago haiek aukeratuak izateko: zerbitzurik onena. Eta barnetegi baterako zerbitzurik onenak zenbait ezaugarri berezi baditu mundu guztiari zerbitzu ona irudituko litzaiokeenarenez gain: hurbiltasuna, goxotasuna, euskararen unibertsora ez derrigorrez, ez behartuta, arrazoibidez baizik jendea erakartzeko gaitasuna...

Klaseen atalari ere arreta berezia eskaini zion Dionisiok. Irakasleak dinamikoa eta dinamizatzaile ona behar zuen izan, euskaldun ona, pedagogian, psikologian eta egoeren eta norbanakoen analisisan zaildua... etab. Baina hori guztia ez zitzaion etxetik ekartzea eskatzen, landu egiten zen, eten gabe ondu. Gogoan dut behin 20 urterik ez zuen "motiko" batek nola esan zizun, irakaskuntza-lanean urte bete osatu zuenean: "zenbat ikasi dudan urte bete honetan, Dionisio!" eta nola erantzun zenion: "ba, oraindik badaukak zer ikasia ugarri!"... eta oraindik ikasten jarraitzen dugu: egiten ditugun okerretatik eta lan onetatik aurrerako ondorio baliagarriak ateratzen.

Horixe da Dionisiok Maizpideko oi utzi digun ondarea. Horixe da Dionisio Maizpiderentzat.

Eskerrik asko, Dionisio eta zorionak jaso berri duzun sariagatik.

Joxe Mari Ormazabal



Euskaraz bizitzea helburu

jende berria hartaratz, eta beti ere, euskararik erabiltzen ez zuenari erabilera eskatuz eta erabiltzeko ikastea eskainiz. Hori bai, Euskararekiko benetako maitasuna!

Baina, zergatik? Zergatik eman eta eskaini behar izan du hainbeste Dionisiok? Zergatik iritsi zen berak hain estimatua zuen komentuko bizitza bera ere euskalgintzako jardun horientatik utzi behar izatera? Nire ustez, gauza batentatik: hil ala biziko beharra ikusi zuelako. Une haietan, era hartan, etengabe, amore eman gabe, jo ta ke, mugarik gabe, horretan lanegin beharra ikusi zuelako, eta ziur aski, oraindik ere ikusten duelako. Egia esan, beharraren aurrean eman dezakeen guztia ematen duenarena baino maitasun handiagorik ez dago eta Dionisioren euskararekiko eta Euskal Herriarekiko maitasuna halakoxea izan dela esango nuke: berak ahal izan duen guztia ematekoa, bai orduan eta baita gaur egun ere.

Hain zuzen ere, bere betiko kezka izan zen eta da, "Euskara, erabiltzeko irakastea eta ikastea". Horregatik, bere adimenaren errotak, beti izan du buruan, euskarazko eskolak ez ezik, euskaraz bizitzeko, beste zerbitzu batzuek antolatzea ere beharrezkoa dela eta ildo horri jarraiki egin zuen 1983 inguruan, ordura arteko eskarmen-tuan oinarrituta, "Asmo baten plazaratzea" izeneko txosten bikaina, berehala, 175 bazkideren laguntzarekin Antsotegi etxean proiektu moduan gauzatu eta gaur egun ere zutik eta bizirik dirauena: Gerriko txokoa eta taberna, liburu-denda eta azpiegiturak, denak ere euskaraz bizitzen laguntzeko. Egitura horien bitartez, Euskara-ikasketen osagarri, euskal jaialdiak, kantaldiak, hitzaldiak, bertso-emanaldiak, antzerkiak, krosak, ibilaldi neur-

tuak, etab. antolatu zituen, hots, kulturgintza, kirola eta aisialdia euskaraz ahal izan zuen heinean, edota dendarien artean egindako lehenengoetako merkataritza-kanpaina, familia euskaldunetan antolatutako mintza-praktikak, oporrak euskaraz, txangoak, lagunartea, euskaldun zahar eta berrien arteko solasaldiak, eta abar, eta abar. Beti, "Euskara erabiltzeko irakastea" pentsatuz eta euskaldun berria edo zaharberritua ikasitakoaz balia zedin, euskaldun legez, euskaraz bizitzea helburutzat hartuz. Hitz bitan esanda: euskaraz bizitzea izan du helburu beti Dionisiok, baina ez bera bakarrik isolatutako gizaki moduan bizitzeko, euskaldunekin, Euskal Herrian, euskal gizartean, euskaraz bizitzeko baizik.

(...)Aipatu beharrekoa da, Dionisiok, bere itzulpen, zuzenketa, artikulua eta gainerakoen bidez egin duen lana. Erlijioa, pentsamendua eta goimailako gaiak euskaraz herri-tarreganatzeko ere helburu izan du beti Dionisiok. Besteak beste, hargatik sortu zitzaion 1989 inguruan Gerriko Ikerkuntza Saria sortzeko ideia ere: Ikerkuntza euskaraz egitekoa alegia. (...) Dionisio bera bestalde, argitalpen horietako askoren zuzentzaile ere izan da.

(...)Beraz, Dionisio ez da oihu eta irrintzizale izan. Eguneroko lanean eta bere printzipioetan sendo oinarritu eta iraunez, helburua inoiz ere zalantzan jarri gabe, aurkako joera eta ideien artean ere, beti bidea argi eta garbi ikusi duen euskalduna izan da. Horregatik egin du hain lan emankor eta bikaina, eta horregatik miretsi behar dugu gaur hemen, nire ustez, ongi irabazitako Anton Abbadia saria jasotzean. Zorionak Dionisio eta eskerrik asko.

Andoni Sarriegi Eskisabel

(...) 1974tik aurrera Dionisio eta biok eta beste hainbatek, euskalgintzan egin genuen topo. Dionisio, ordura artekoak gorabehera, UEUren lehenengo ikastaroetan izana zen Donibane Lohizunen eta Joxe Manuel Odriozolarekin batera euskalduntze-alfabetatzeaz jarduna. Lehengoak lehengo, bere adimen aspergaitzaren errota lanean jarria zuen eta 1975ean, Lazkao aldetik berak eta bere ingurukoek eragin eta deituta, Goierriko Gau-eskole-tako ordezkariak biltzen hasi ginen. Ni Beasaingo ordezkari moduan joan nintzen eta handik aurrera, 1990era arte, 15 urte luzeetan zehar, beste askorekin batera, elkarren ondoan euskalgintzan eta kudeaketan lanean aritzea suertatu zitzaigun. Eskolak emateaz gainera, asteroko edo hamabosteroko iluntzetako kudeaketa-bilertan parte hartuz egin behar izan genuen elkarlan hori.

Alde batetik, Goierriko euskalduntze-alfabetatzea eratu eta koordinatzeko lana hasi genuen 1975ean bertan, eta bestetik, Gipuzkoako alfabetatze-euskalduntze koordinakundea (AEK) eratzen ere lagundu genuen. Dionisioren burua beti, gauza berrien atzetik ibili ohi zen. Bileretara, ideia berri ugari-ekin etorri ohi zen. Berak asmatu zituen noski, idatzita ere gelditu diren garai hartako helburu edo mezu nagusietako batzuk: "2000. urterako Goierri euskaldun", "Guztiok euskaldun = guztiok euskaradun" eta "Goierri euskaldunduz, Euskal Herria euskaldundu". Hain zuzen ere, goiburu horiek hartu zituen Goierriko Euskal Esko-

lak 1977an eratu zenean eta 1981ean Kultur Elkarte ofizialki bihurtu zenean.

Dionisio bestalde, negoziatzaile ona izan da eta 1975etik aurrera eratu eta AEK-ko partaide zen Goierriko Euskal Eskolak, handik 6 urtera, HABE-ekin negoziatu zuen Lazkaoon Barnetegia egitea eta Beasainen eta Ordizian Udal Euskaltegiak sortzea. Hori bera ere ez zen erraza gertatu, izan ere, agintari batzuek, ez zuten oso begiko euskalduntze-alfabetatze antolakuntza hura, eta agian, ezta Dionisio bera eta inguruan genbiltzanok ere. Bestalde, koordinakundean bertan ere, asmo horiek ez ziren denek ongi ikusiak izan. Beraz, ez zen erraza izan orekari eustea eta asmo haiek gauzatzea. Azkenean ordea, bai Agintarien artean eta baita euskalgintzan zihardutenen artean ere, beste ikuspegi batzuek ziztuzten pertsonak ere suertatu ziren eta proiektuak gauzatu egin ziren hein handi batean.

Abertzale eta euskaltzale izeneko askorengandik, oso ohituak geunden honako hau entzuten: "Euskara bihotzez maitatu eta bihotzean gorde behar da". Dionisiok ordea, beti garbi izan zuen eta orain ere hala duela uste dut, maitasun platoniko eroso guztien gainetik, euskararen erabilpenak bermatzen duela maitatzen jarraitu ahal izateko biderik onena eta bera horretan ahalegindu izan da beti: zenbaitzuentzat euskara orbainduegian idatziz, euskara batuaren hautua lehen unetik argi eta garbi eginez, asko ikasiz eta irakatsiz, eskola ugari emanez eta emanaraziz,

Abenduaren 26an egin zen sari-banaketa Ordiziako udaletxean

Goierriko landa garapen proiektuak saritu ditu Goimen elkarteak

Urretxuko Agerre baserriko Iñaki Sasieta, Beasaingo Pagorriaga baserria, Sandra Fernandez-Iñaki Elgarresta eta Ximena Rodriguez-Maialen Galparsoro saritu ditu Goimen elkarteak, II. landa garapen proiektuen sariketan. Abenduaren 26an Ordiziako udaletxean egin zen sari banaketa. Goimen elkarteak, Goierriko udalek eta nekazal ordezkariak osatzen dute. Sari hauen helburua, nekazaritzari eta nekazal inguruari eusteko egin diren proiektuak saritzea da, errekonozimendu sariak dira.

Goimen elkarteak beharrezko ikusi zuen iaz baserri-inguruari eusteko sortzen ari diren ekimenak saritzea, askotan ekonomikoki errentagarriak ez diren ekimenak gainera. Ideia berritzaileak ere saritu nahi izan ditu Goimenek. Aurten bigarren ekitaldia izan du sariketak eta hiru ataletan banatu dituzte sariak.



batean espezializatuz, esnearen zuzeneko salmentarekin, eskaintza handituz eta produktua transformatuz etekin handiagoa ateratzea lortu du Sasietak. Behi esne naturala eta gaingabetua, eta ardi esnea saltzen ditu merkatuaren estrategia berrietara egokituz.

Iñaki Sasieta:

Baserri eredugarria

Sari honek baserritik biziz jarraitu nahi duten gazteak saritu nahi dira. Betiko baserriari eutsiz baina gaur egungo gestio tekniko-ekonomikoan oinarrituz. 250.000 pezeta eta garaikurra jaso zituen Urretxuko Iñaki Sasietak. 32 urte ditu. Ezkonberria, bere familiarekin Agerre baserrian bizi da. Goimenen ustez, belaunaldi aldaketaren adibidea da Iñaki Sasieta. Gazte-gaztetatik baserriko lanetan lagunduz aritu da, batez ere esne behiekin eta ardiekin. Multifuntzional izaerari helduta eta ez aktibitate bakar

Pagorriaga: Proiektu berritzaileen garapena

Atal honetan Beasaingo Pagorriaga baserria saritu du Goimenek. Goierri garatutako ezohiko proiektuak saritu nahi ditu Goimenek edota eta produktu tradizional bati gestio aldaketa emate.

Oreinak hazten dituzte bertan eta oreinaren haragia saltzen dute. Orein haragia bera ere transformatu egiten dute. Jabier Blanco 'Txuri' eta Agustin Linazasoro dira Pagorriagaren arduradunak. Murumendi mendiaren magalean dago Pagorriaga. 70 buru dituzte. Beste abere arraza batzuk ere badituzte Pagorriagan: ahuntz ipotxak, ardiak, oiloak, indioilarrak, faisaiak, ahateak, usoak... Epe laburrean bisita didaktikoak antolatu nahi dituzte. Energia alternatiboak ere praktikan jarriak dituzte baserriaren mantenturako: eguzki panelak, plaka termikoak eta haize errota. 250.000 pezeta eta garaikurra jaso dituzte Pagorriagakoek.



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garaiea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

OTEÑE
ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabean

Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48





Sandra Fernandez eta Iñaki Elgarresta: Idea berritzailea

Atal honetan bi sari eman ditu Goimenek. Baserri ingururako ekimen berriak bultzatu nahi dira sari honetan. Lehenengo saria, 150.000 pezeta, Sandra Fernandez eta Iñaki Elgarrestarentzat izan da. Nekazal jarduera eta granja eskola martxan jartzea uztartzen ditu proiektuak. Era berean, gure baserrietako animalia arrazak zaintzea du helburu, sentsibilizatuz eta bisitariak erakarriz (batez ere ikasleak). Sandra Fernandez eta Iñaki Elgarrestak herritarrek baserriaren eguneroko gestioan aktiboki parte hartzea nahi dute, bertatik bertara animalien arteko ezberdintasunak ikusiz eta estimatuz. Proiektuak desagertzeko arriskuan dauden espezie zinegetikoak sartzeari ere aurreikusten du.

Sandra Fernandezek 27 urte ditu, nekazari ingeniari teknikoa, nekazaritza ekologikoko ikastaroak eginga eta Arantzazuko Artzain Eskolan ikasia. Iñaki Elgarrestak 25 urte ditu, gabiriarra, zuzenbidean lizentziatzeaz eta ELEko (Euskal Herriko Latxa Elkarte) teknikaria da. Bikoteak proiektua bideragarri egiteko larreko oiloen arrautza ekologikoak saldu nahi ditu.

Guztia praktikan jarri ahal izateko, baserria eta lursaila behar dituzte.



Ximena Rodriguez eta Maialen Galparsoro: Idea berritzailea

Idea berritzaileen bigarren saria, 75.000 pezetakoa, Ximena Rodriguez eta Maialen Galparsororentzat izan da. Biak ere, Mendi ingeniarietako ikasleak dira. Bi nesken proiektuak, baserri munduaren inguruko sentiberatze kanpaina egitea planteatzen du, gizartea gero eta hiritarragoa den garai honetan.

Bertako kultura pixkanaka galtzeak, garai batean hain uztartuta zeuden baserria eta kalea polarizatu eta gero eta urrunago egotea ekarri du, biak bereizi ahal izateraino. Honek azaltzen digu zergatik eskatzen dugun gero eta gune natural gehiago eta zer jaten dugunaren garrantzia.

Era honetan, gaiak gizartean gero eta interes gehiago sortzen duela ikusita, gai honen inguruan hausnarketa egiten laguntzeko materiala prestatzea aurreikusten du proiektuak.



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



Gabonak giro ederrean ospatu dira

Hotzik falta ez bazen ere, aurreten ere Aitxuri Herri Eskolako haurrak goizean goiz irten ziren Zegamako kaleak gabon abestiz alaitzera. Hala-ber, arratsaldean, Kultur Etxetik egindako deiari erantzunez, Goialdea eta Barrenaldean ere eskean aritu ziren bi talde, hauek umore onez ibili ziren baserri-berri. Arratsaldeko 6,30ak aldera herriko Plazan Olentzerokin elkartu ziren, herrigunean azken abestiak kantatuz.

Urte zahar gauean ere goizaldera arte iraun zuen festa giroak, herritarrok Zegaman bertan geratzearen aukerak

gero eta indar handiago du, guztion pozerako.

Errege bezperan ere, Meltxor, Gaspar eta Baltasar ere bertan izan genituen, zaldien gainean etorri ziren eta Zegamako haurrik gehienak, beren gurasoekin San Martin Elizan izan ziren opari eske.

Beraz, Gabon jai bake-tsuak eta alaiak aurtengoak. Zorionak eta Urte Berri on zuri ere, irakurle.

Makinista postua

Oinarriak GOIERRITARRA aldizkariaren 4. orrian daude.

Eduarne Albizu



2002ko aurrekontua

Zegamako Udalak, abenduaren 20an burututako Osoko Bilkuran onartu zen 2002rako aurrekontua ahobatasunez. Guztira 258.495.234 pezeta, 1.553.587,65 euro inguru.

Aipagarria da udal inbertsioetara zuzenduko den atala, hemen, Intxaustiko Industrialdeko obrak, Ostatuko erreabilitazio lanak, Olararen gizarte zerbitzuak ipintzeko obrak, udal seneamenduko obrak, baserrietako bideak konpontzekoak eta abar.

Azpimarratu, aldi berean, udal agiritegia antolatzeko eta Ehungintza Enplegu tailerrera ere partidak badaudela.

Beraz aurtengo urtea ere obraz jositakoa izango dugu, oraingoan ere guztion pazientzia beharko da.



Sagardotegi garaia

Sagardoa dastatzeko sasoia iritsi denez, Otatza sagardotegiak ere hilaren 18an irekiko ditu bere ateak denboraldi hasiera emanez.

Beste urteetan bezala aurreten ere asteburu eta jai egune-tan eguerdi eta iluntzetan irekiko dute eta astean zehar iluntzetan. Atsedan eguna asteazkena egingo dute.

Tute eta mus txapelketa

Liztormendi Elkartek, Tute eta Mus txapelketak antolatu ditu aurreten ere. Tute hilaren 26an eta musa otsailaren 9an arratsaldeko 4etan hasita, el-karte bertan jokatu dira.

Kultur Etxeko bilera

Kultur Elkartek aurreten ere ohi duen batzarra, hilaren 27an eguerdiko 12etan kultur etxean izango da. Bertan urtean zehar egin diren ekintzen eta aurtengo urterako asmoen berri emango da.

Mari Flor Mendizabal

ARRIETA

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak



F.M. 89.2

EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN

Urte berriarekin batean iritsi zaigu Euroa

Eurosiak jota

Gaurko kronika hau guztioi urte berri on bat izan dezauela opatuz hasi nahi nuke eta nola ez, horrenbeste "buruhauste" sortzen ari zaigun euroaz hitz egitea ezinbesteko gertatzen zaigu urteko lehen hartueman honetan. 2002. Urtearekin batean iritsi zaigu ditzosozko euroa eta herritarrok zer moduz moldatzen garen jakite aldera, herriko zenbait komertzio eta tabernetan ibilia naiz. Etsipena eta pazientzia dira gehien entzun ditudan hitzak. Eta noski, gauza berriek hasiera batean sorrarazten diguten urduritasuna.

"Hasieran urduritasun pixka bat bagenuen baina orokorrean ondo ari gara moldatzen. Denbora gehiago behar dugula guk kobratzerakoan eta bezeroak ordaintzerakoan. Urtebeterako edo bakarrik, proba moduan izan balitz desberdina izango zen baina, betirako denez moldatu egin behar, ez dugu beste erremediorik", esan zigun dendaria batek. "Oraindik ere pezeta dugu buruan, zioen beste batek, jende batek oraindik ere deskonfiatu edo egiten du, batik bat adinean aurrera doazenek. Badira bezero batzuk, beren seme-alabak bidaltzen hasi direnak erosketak egitera, beraiek moldatuko ez direnaren beldurrez edo".

Orokorrean, badirudi jendea ari dela eurotan ordaintzen baina, "oraindik bueltak pesetetan eskatzen dituenik ere bada", esan zigun beste dendaria batek. "Buruhausterik handiena, pesetetan ordaindu eta bueltak eurotan

ematea da guretzat. Gainera balantzak prezioak eurotan bakarrik ematen dizkigu eta kalkulagailuarekin kalkulatu behar izaten dugu zenbat itzuli behar dugun jakiteko eta horrek denbora eramaten du", zioen harakin batek. "Jubilatuak dira modernoenak", esan zigun tabernari batek erdi txantxetan. "Tabernetan, kontuak errazteko edo, redondeoa ematen ari da. Beraz, ardo bat 33 zentimo izan beharrean normalean 35 zentimo izatera iristea izango da. Hori jada egin dute Donostiako taberna gehienetan". Bezeroaren mesedetan ala kaltetan izango den, hori beste kontu bat da ordea. Ileapaindegian berriz, oraindik ere gehienek pezeta erabiltzen omen dute ordaintzeko.

Dudarik ez da denbora eramango digula guztioi ere txanpon berrira ohitzeak baina pazientzia pixka batekin hartzen badugu jarriko gara honetara ere. "Hasieran gogorra egiten da batik bat prezioak buruan hartzearena. Txuletari begiratu behar izaten diogu maiz-maiz. Gehien saltzen diren produktuen prezioak ari zaizkigu buruan sartzen baina besteenak begiratu egin behar". Botiketan,

Labur-labur

● **On Joxemiel gogoan.** Joan den abenduaren 21ean, On Joxemiel Barandiaranen heriotzaren 10. urteurrena bete zen. Egungorretako "Euskaldunon Egunkariak" bildutako deklarazio batzuetan, horrela zioen Jesus Altuna, Aranzadi elkartearen zuzendariak eta haren ikasle izanak, On Joxemiel buruz: "Gure herriak izan duen aztertzaile garrantzitsua izan da Aranzadirekin batera".

● **Aitzkoate Kultur Elkartea egoitza berri bila..** Aitzkoate kultur elkartea egoitza berri batera joateko egitasmoan murgilduta dabil. Bazkide egitea interesatzen zaion edonork, zuzendaritza taldekoren batekin harremanetan jarri besterik ez du, ahal bada urtarilaren 19an egingo den batzarraren aurretik. Datozen aleetan, izango duzue horren berri zabalagoa.

● **3 heriotz eguberrietan.** Urez-Andii baserriko Juan Galparosoro, Manuel Auzmendi eta Jesus Barriolaren heriotzen berri izan dugu azken asteotan. Doluminak senitartekoei.

adibidez, gehienetan prezioak bi eratar, pezeta eta eurotan jarrita datoz eta horrek asko errazten du, "gainera ordenadorearekin ez dugu halako arazorik. Otsailera arte behintzat, bi prezioak ematen baitizkigu", esan zigun Inaziok. Izan ere, badakizue, martxotik aurrera euroa izango baitugu moneta bakarra. Beraz, gero eta azkarrago ohitu, hobe.

Hemen dituzue oinarritzko prezio batzuk, erreferentzia gisa edo:

Ogia 0.90 zentimo.

Kilo bat solomo: 9 euro eta 2 zentimo.

Kilo bat xerra: 9 euro eta 62 zentimo.

Arkumea: (merkatuaren arabera, gutxi gora behera) 8 euro eta 96 zentimo kilo.

Peskadila: (nahiz eta festa egunotan garestixeago dabilen) 12 euro eta 2 zentimo.

Aspirinak: 2 euro eta 70 zentimo.

Basoerdi bat: Normala 33 zentimo. Berezia 66 zentimo.

Ile apainketa: 14 euro ingurura.

Eguberrietan ekintza ugari

Eguberrietan ere izan da zer ikusirik herrian. Ohiko Gabon eguneko eta Urtezaharreko eskeez gain, Udalak ekitaldi sorta antolatu zuen pasa berri diren opor egun horietarako. Eate abesbatzaren emanaldia, Mikel Urdangarin eta Bingen Mendizabalaren kantaldi arrakastatsua, organo kontzertua, antzerkia, argazki lehiaketa.... Baina bereziki aipatu nahi nuke, Eate abesbatzak beren emanaldiaren amaieran eskaini ziguten bitxikeria. Joxe Arratibel, idazle ataundar ezagunak "Kontu Zaharrak" bere liburuan jasotako bitxikeria bat eskaini baitziguten amaieran. Bitxikeria era askotara ulertuta gainera. Izan ere, Maximo Aierbe, Eateko zuzendariak azaldu zuen bezala, "Epistola" hori elizan abesten omen zen, baina nolabait esateko, bitxikeria, elizako kantua izanik duen letra "traketsean" datza. Felipe Arratibelek abesten omen zuen. Aukerarik baduzue, entzuteko modukoa da, benetan.

Agurtzane Bikuña

Ataun K. E.

Areto futbol: Maila autonomikoa, ostiralean 21:00etan, Ataun Avia-Cabo rojo. **2. maila,** larunbatean 17:00etan, Ramon Vizcaino-Ataun Bitor Jatetxea.

Esku pilota: Eguberri txapelketa, larunbat honetan, zehaztugabeko orduan. Maila nagusia: Jon Dorronsoro - Eneko Imaz. Jubeniletan: Eñaut Sukia - Gorka Albisu.

Ataun K.E.ko errifa: zenbaki saritua: 8.795 (Tomas Auzmendiri egokitu zaio)

San Sebastian jaiak Garinen

Urtarrilaren 19 eta 20an Garin auzoan San Sebastian jaiak ospatuko dira. Jaiei hasiera kanpaiek eta suziriek emango diote **13:00etan**. Ondoren Auzo-elkartean herribazkaria izango da **14:00etan**. Arratsalde partearako haur jolasak antolatu dituzte eta bertsolariak entzuteko aukera ere izango da **18:30etatik** aurrera. **19:30etan** berriz, 'Iparraldeak kantuz' jaialdia ospatuko da. Pier Paul Berzaitz, Mai Elen Estekahandi eta Frantxoa Cousteau izango dira aipatu jaialdian.

Igandean, **10:30ean** goiz-eresia izango da Beasaingo udal txistulariekin. Ondoren Meza Nagusia izango da **11:00etan**, 'Aingeru-meza' ospatuko delarik. **12:00etan** auzoko zaharrenei omenaldia



egingo zaie eta horien artean izango dugu 105 urte dituen Plazida Intxausti herriko amona ere. **12:30ean** euskal dantzak ikusteko aukera izango da eta **13:00etan** pilota partidak izango dira. Aurten go San Sebastian jaiei amaiera, arratsaldean Auzoko Elkartean izango diren trikitixa eta musikarekin emango diote.

XXVIII. San Silbestre kros lasterketa

Afrikarrak izan genituen nagusi Beasaingo San Silbestre kros lasterketan. Partehartze handia izan zen baina zera azpimarratu behar dugu beste behin ere, emakume gutxi direla bertan iristen direnak, oraingoan bost izan ziren.

Irteeran, Diego Garcia eta Javier Escalante korrikalari ohiak gogoratu zituzten. David Kimei kenierra izan zen lehena helmugaratzen (24.46) orain bi urte bezala. Lehen lau postuetan afrikarrak nagusi eta 5. postuan helmugaratu zen Kamel Ziani. Herritarren artean, berriz, lehena Manu Hurtado (26.38), Juan Carlos Valdivielso bigarren (27.50) eta Aitor Etxebeste izan zen hirugarren (28.22). Nesketan Aloña Gonzalez izan zen lehena helmugaratzen.

Mendiko federatu txartela berritzeko epea zabalik

Aitzgorri Mendizale Elkartetik jakinarazi dutenez dagoeneko epea zabalik dago mendiko federatu txartela berritu nahi duenarentzat. Astelehenetik ostiralera 19:00etatik 20:00etara Arana kalean duten egoitzara hurbildu zintezkete beraz interesa duzuenok.

Ikastaroak Asmuben eskutik

- **Hariarekin egindako lanak** egiten ikasiko dituzte urtarri-laren 15ean hasita. 18:00etatik 20:00etara izango dira klaseak eta 18 orduko iraupena izango du.
- **Pachwork** ikastaroak 18 orduko iraupena izango du eta hau ere urtarri-laren 15ean hasiko da 18:00etatik 20:00etara.
- **Eskulanak** 40 orduko iraupena izango du. Urtarrilaren 16an emango diote hasiera eta asteazkeneko emango da arratsaldeko 5,30etatik 7,30etara.
- **Idazkera eta literatur tertulien** inguruko ikastaroa asteazkenetan emango da 18:00etatik 20:00etara
- **Helburu pertsonalak nola burutu** gaiaren inguruan hitzaldi informatiboa emango dute urtarri-laren 18an arratsaldeko 6etan.

Izenemateak, Asmube Elkarte bertan egin beharko dira arratsaldeko 5etatik 6etara.

Orientazio programako jardunaldiak

Txindoki-Alkartasuna Institutuak, batxilergoko bigarren mailako ikasleen gurasoei zuzenduriko Orientazio Jardunaldiak antolatu ditu. Jardunaldi hauen helburua, gurasoei beren seme-alabek etorkizunean burutu beharko dituzten ikasketei buruzko informazioa izatea da. Institutuko areto nagusian egingo dira hitzaldiak 18:00etan.

Urtarrilaren 15ean, EHU/UPVko kanpuseko unibertsitateko ordezkari batek hitz egingo du.

Urtarrilaren 16an, Mondragon Unibertsitateko ikasketak izango dira I. Ramirez de Okarizen ahotan.

Urtarrilaren 17an, Deustuko Unibertsitateko A.J. Ardanazek ikastetxe horretako aukerak aurkeztuko ditu, eta ondoren Nafarroako Unibertsitateko M.I. Jimenezek hitz egingo du unibertsitate horren nondik norakoak azalduz.

Kultur taldeekin hitzarmena

Udalarekin elkarlanean diharduten kultur taldeekin urtero egiten diren hitzarmenen berrikuntza martxan da dagoeneko. Interesatuta dauden elkarteek 2002. urterako prestaturiko ekimen planak aurkeztu beharko dizkie Kultura Batzordeari, bertan, proiektuak eztabaidatzeko eta akordioak sinatzeko aukera izan dezaten. Hitzarmen hauek urtebeteko epea izango dute. Ekimen honekin helburu zehatz bat lortu nahi da, elkarte guztietako egitarauak aurrez ezagutuz, egutegiak hobeto antolatzeko aukera ematen du. Beraz, interesagarria izango litzateke, hitzarmenarekin aurrera jarraitzeko interesa duen jende guztiak, egon daitezkeen aldaketak eta aurten egiteko pentsatuta duen programazioa prestatzen joatea. Iazko hitzarmenutako ekintzen memoria eta balantze ekonomikoa ere aurkeztu behar da akordioaren proposamenarekin batera. Udalaren asmoa, birnegoziaketa ahalik eta azkarren egitea da.

Nekane Altuna



Amnistiaren aldeko saskia Oier Urdangarinentzat

Urtero bezala, Errege egunean zozketatu ohi den saskiak -mendia ekipoa- badu jabe berria. Oier Urdangarin 18 urteko gazte zaldibitarak zuen zorioneko zenbakia (0320). Argazkian ageri da Oier, Nikolas Aiestaran eskutik saria jasotzen. Osasunez urra ditzala beraz bertako arropa eta bestelakoak!

Bestalde, Eguberri bezperan goizean goiztik aitton-amon jantzita kantari aritu zineten herritar guztiei beren eskerrik berroenak helarazi nahi dizkizue Zaldibiako Askatasuna elkarteak.

Hortxe gabilta azken urteotan, ez gora eta ez behera egiten dugula. Iazko urtean izandako ibilbide demografikoak ere gauzak bere horretan jarraitzen duela egiaztatzen du. Izan ere, herritik joan eta herrira etorri diren biztanleak aintzat hartuta, eta 2001ean gure artetik betirako joan (guztira 16) eta gure artera bizi pozez etorri direnen kopuruari erreparatuz gero (guztira 10), 1.500 biztanletik gora izaten jarraitzen dugu gurean, 1.515 biztanle hain zuzen ere. Hemen duzue iaz Zaldibian hildako eta jaioetako guztien zerrenda:

Hildakoak (16)

Alejandro Corchete
Maria Etxeberria
Justa Etxeberria
Jose Erauskin
Ignacia Garmendia

Francisca Garmendia
Eulalia Garmendia
Isabel Gutierrez
Maria Paulina Imaz
Maria Consuelo Irastorza
Felipe Iruin
Josefa Leunda
Jesus Mendizabal
Maria Asuncion Mendizabal
Jesus Perez
Eleuteria Sukia

Jaiotakoak (10)

Igor Alustiza
Aimar Aiestaran
Himad Haddad
Jon Mendizabal
Aitor Murua
Iñaki Oria
Reda Qazqaz
Ania Saez
Sarai Sukia
Unax Ugartemendia

*Iñaki Gurrutxaga
Saroi Jauregi*

Euskal dantza ikastaroa

Udaleko Kultur Batzordeak euskal dantza ikastaroa antolatu du herriko Dantza taldearen eta Kutxa Gizarte Ekin-tzaren laguntzarekin. Ikastaro hau urtariletik maiatzera gauzatuko da. Oraindik zehazteke daude zein egun, or-

dutegi, leku, matrikula (izango balitz) eta izena ematen dutenen artean Udaletxeko Areto Nagusian urtarilaren 16an arratsaldeko 8etan izango den bileran erabakiko dira xehetasunak.

Ikastaro honetan parte hartu nahi duen orok Udaletxeko Bulegoetan izena eman beharko du urtarilaren 11 baino lehen. Gogoratu ondoren hilaren 16an izango den bilera joan beharko duela.

Kronista beharrean

Herriko berriak idazteko kronista behar du GOIERRITARRA aldizkariak. Lan honetako prest dagoe-na, jar bedi harremanetan, 943-889612 telefono zenbakira deituz. Ez da beharrezkoa kazetaritza ikasketak izatea.

Goierri Bus
Segurtasun eta kalitatezko zerbitzua
Tel.: 943 72 52 50
Faxa: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak
19, 29, 55, 60 eta 82 plazatakoak
Literadunak komunarekin



IN AUSTI
KARROZERIA
N-1 errepidea, lurre auzoa
943 88 43 01 OLABERRIA

Bola denboraldia

Urtarrilaren 13tik aurrera hasiko dira bola txapelketa ofizialak (taldekakoa, erregulartatea, Goierrikoa, bikotekakoa, Gipuzkoakoa, Euskadikoa eta lehendakari saria). Seguratik, Xepeño Agirre, Antonio Agirre, Martxeliño Agirre, Imanol Agirre, Jexux Mari Intxausti, Joakin Izagurre eta Jokin Izagurre arituko dira. Urtarrilaren 6an Legazpiko Danantzakon jokaturako errege saria Xepeño Agirrek irabazi zuen.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Errejonialak:** Bergara 1-1 Segura. **Jubenilak:** Eibartarra 1-1 Segura. **Kadeteak:** Aizkorri 2-3 Aretxabaleta.

Asteburuan etxean: Zapatuan. **Infantilak:** Aizkorri-Touring (11:00). **Jubenilak:** Segura-Burumendi (15:30). **Errejonialak:** Segur-Hamaiak bat (17:30). Haimakak bat lehenengo dago eta Segura bigarren. Lehen itzuliko azken partidua.



San Sebastian urtarrilaren 20an

Santuaren egun berean izango da aurtien ospakizuna San Sebastiango ermitan. Meza, 12:00tan emango da auzoan hildakoen alde. Ondoren hamaiketako eskainiko dute auzotarrek udalaren laguntzaz.

Umetxea hilaren 14an zabalduko da

Turismoko bulegoa izandakoa utzi du Udalak

Neguak, hotzak, bustiak, ilunak eta luzeak ditugunez, herriko gazteenek eskolatik iritenda leku egokirik ez dutela eta, zenbait gurasok aspalditik eskatua zioten udalari lokal eta aterperen bat. 20 gurasok egindako azken eskaeraren ondoren, udalak Kultur etxean zegoen turismo bulegoa umetxe bihurtzea onartu du (turismoko informazio bulegoa Ardixarrenera pasatzeko asmoa da). Haur Hezkuntzako umeen gurasoak aste honetan bildu dira barne araudia gauzatu eta 60 metro karratu inguruko aretoa egokitzen hasteko. Bertan lau txoko antolatuko dira

(ume-umetxoena, ipuinena, eskulanena eta meriendarena). Aurrerantzean, gainera, umeentzako aktibitate ezber-

dinak burutuko dira. Momentuz, astelehenetik ostiralera 16:30etik 19:00etara egongo da zabalik.



Umetxea egokitu eta beharrezko materialak erosteko, kantu eskean atera ziren zenbait guraso eta ume, abenduaren 24an.

Labur-labur

● **Atsedeen** jubilatuen elkarreko taberna Ixabel Zubizarreta eta familiaren ardurapean da abenduaren 28tik. Lehen bezala, afariak eta gainera eguneko menua ere eskainiko dute.

● **Udaberriko II. Lore eta Landareen azoka** (martxoaren 24an) antolatzeko 2. bileta urtarrilaren 23an izango da

18:30ean udaletxean. Herriko talde, erakunde nahiz partikularren parte hartzea ezinbestekoa da.

● **Kirol eskolarra.** Mendi iteera urtarrilaren 13an Arranoaitzera (878 m.) goizeko 8,30etan plazatik.

● **Bataioak.** Urtarrilaren 13an, 12:00etako mezatan.

● **Puntu ikastaroa.** Udalak antolatuta, otsailean, astean behin (14:30-16:30). Begoñita Areizaga herritarrak emango du. Izen ematea, urtarrilaren amaierarako udaletxean.


Joseba Telleria

25 bikote pala txapelketarako

Segurako Kirol Elkarteak 16 urtetik gorakoentzat antolatu duen pala goma txapelketan espero baino herriar gehiagok eman dute izena, 25 bikotek guztira. Partiduak, urtarrilaren 13an hasi eta San Ixidro egunean finala eta 3. eta 4. postuak jokatu dira. Lehiaketarako 6 talde egin dira eta ligaska bidez bi lehenak sailkatuko dira, ondoren kanporaketaz finalera iristeko. Jai goizean, goizeko 10etan hasita, 3na partidu jokatu dira 30 tantotara, Baratze pilotalekuan.

San Silbestrean irabazle

Pasa den abenduaren 31n, Ordiziako San Silbestre lasterketa Eneko Agirrezabalek irabazi zuen kadeteen mailan, 3 km korrika burutu ondoren. Abenduaren 23an, berriz, 3. egin zuen Arrateko krosean. Eneko, Ordiziako Txindoki Atletismo Taldean dabil. Negu partean krosean arituko da ondorn pistari ekingo dio.



Sanblasetarako prestatzen

Urtarrilaren azkeneko asteburuan hasiko dira Sanblasetako ekitaldiak. Herriko tabernariak antolatuta, iaz egin zuten lehendabizikoz, urtarrilaren 26an, larunbata, dantzaldia egongo da. Trikitake taldeak jarriko dizkie Sanblasei lehendabiziko doinuak.

Urtarrilaren 27an Herri krosaren XXI. edizioa jokatu da eta arratsalderako haurren danborrada dago antolatuta. Festen hasiera ofiziala ordea, otsailaren 1ean, ostirala, izango da. Arratsaldeko 8etan jaurtiko da festen hasierako txupinazioa eta otsailaren 4an, astelehena, gauerdian igoko da berriro ere Axaria.

Festa Batzordeak antolatutako egitarauan, aurreko urtetako ekitaldiak, eta berrikuntzaren bat ere badaude. Larunbat eguerdian Axari dantza taldearen emanaldian helduen talde batek ere parte hartuko du. Arratsaldean, goitibehera txapelketa egingo da. Kirolak ere tarte berezia izango du Sanblasetan, futbito txapelketako finala, profesionalen pilota partidak, Urrezko aizkora sarirako saioa eta Sakanako sokatirlariak izango dira besteak beste.

Musikari dagokionez, herriko trikitilariak, Sakatrik, Drindots, Akelarre eta Joselu Anaiak izango dira Idiazabalen. Sanblasak bukatu eta hurrengo astebururako Inauteri festa ari da antolatzen Festa Batzordea.

Nazario Telleria
Abenduaren 16an hil zen Nazario Telleria. Bitoriano eta Rikardo anaiekin, urteetan herriko txistulari bandako kide izan zen Nazario eta herriar askori txistua jotzen ere erakutsi zien.

Musikaz gain, hamaika lan ere egin zituen. Periodiko saltzaile, barbero... herriaren alde egindakoetatik, beste inork baino hobeto zekizkien



Gaztetxeak urtebete

Gaztetxeak urtea bete zuela ospatzeko jaia egin zuten herriko gazteek abenduaren 15ean. Hamaiketakoarekin hasi zen festa eta Guraso Elkartean egindako bazkariarekin jarraitu zuen. Arratsaldean Gaztetxeak antolatutako pilota txapelketaren finala jokatu zuten Potxolo-Telleriak, Katalina anaiei aurka. Bertsoz alaitutako partida, Katalina anaiek irabazi zuten. Ondoren, ehun kilotik gorako harria nork urrutirago eraman, apustua egin zuten Bernak eta Garmenek, Iker eta Markelen aurka. Kaleko hotzak ez zituen gaztetxeak beldurtu eta triki-bertso poteoa egin zuten afaria bitartean. Gauean, Gaztetxean, herriko "Apartheid hil" taldeak kontzertua eskaini zuen. Jaiak goizaldera arte iraun zuen.

Ursuaran Idiazabali batu zitzaioneko pasadizoa.

doinuak entzun ziren.

Xabier Urteaga

Azken agurrean, bestela ezinda, hain maiteak zituen txistu, organo eta koruaren

labur-labur

Zinegotzi berria

Abenduko plenoan hartu zuen zinegotzi kargua Benito Irizarrek. Irizarrek, Xabier Imazek Eusko Alkartasunaren taldean utzitako hutsunea beteko du.

Loteria

Gabonetako loteria zozketak, Kirol Elkartek saldutako zenbakia saritu zuen. Dirua Idiazabalgo Kutxa eta Euskadiko Kutxaren bulegoetan jaso liteke.

Multak

Herri barruan trafikoa zaintzeko, Idiazabalgo Udalak Herrizaingo sailarekin zuen hitzarmena berritu egin du. Aurrerantzean ere, Ertzaintzak herri gunean multak edo isunak jartzeko ahalmena izango du.

Kanposantua

Urte berriarekin batera, kanposantuko zerbitzua kanpoko enpresa baten esku geratu da.



Iñautsi
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
002 ZUKI. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabal**go Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.

Azoka denboraldi oparoa baserritarrentzat

Nekazaritza eta abelzaintza izan dira oraintsura arte gure herrian jarduera ekonomiko landuenak; oraindik ere mundu horretan kokatzen dute Gabiria gida turistiko edo gainontzeko argibide-informazioek: ingurune rurala omen gurea. Eta errealtatea bera bertatik bertara ikusita horrela ez pentsatzeko arrazoirik ez dute ematen herriko larre, baratza, soro, arboladi, baso, artalde eta ganadu hazienda ugariak, egia esan.

Oso bestelako egoera soma daiteke, ordea, datu ekonomikoei erreparatuta; Gabiriako langileen lan jarduera nagusia zein sektoretakoa den begiratzea nahikoa da baserriari lotutako produktioa bigarren mailan dagoela konturatzeko. Gaur egun diru-sarrerara nekazaritza nahiz abelzaintzatik bakarrik daukan familia bakarra dago he-

rrian, EHNE sindikatuaren arabera. Alegia, familia bakarra bizi dela zuzenean nekazaritza. Orain urte gutxitatik hona nabarmen jaitsi da kopuru hori.

Baina ez dago kopetilun jartzeko arrazoirik ere. Azken hamarkadan konpondu edo itxuratu diren hamaika baserri mardul ditugu lekuko, eta horietan egindako lanaren emaitzaren kalitatea ziurtagiri onena. Gauzak ondo doan seinale da urteak direla baserritar gabiriarrak inguruko azoka entzutetsuenetatik sariak bata bestearen atzetik ekartzen ari direla. Ondorengo zerrendan ipini ditugu denboraldi honetako zenbait. Inora joan gabe, bertan zer nolako kalitatezko produktuak ditugun konturatzeko ez dira gutxi, ez. Ikusi ondoko koadroa.

Aspaldiko hotzik handienak

Sekula baino beherago jaitsi da aurreko abenduan termometro-
etako merkurioa. Egindako hotzak, eta ondoriozko izotzak, kalte ugari sortu du herrian. Minimoa jakiterik lortu ez dugun arren, Gabon eguneko zeropeko 6 graduek ederki adierazten zuten zein neurritakoa izan den antizikloi siberianoa; honela, egun horretan Eliz-azpitik beherako zenbait etxe urik gabe geratu ziren, hodieta ura izoztu eta tapak lehertu baitziren.

Abenduaren 26ko goizean ere istripu txiki bat baino gehiago eragin zuen jelak errepidean, Astiasarandik Ormaiztegi-
ako goiko bidean, batik bat. Ertzaintzak pasoa itxi egin behar izan zuen zati horretan. Diputazioko kamineroek beste errepideetan ere gatza askotan bota dute, eta hain laiotza den Urruti aldeko igoeran mesede galanta egin zuen.

Gabonetako zozketak

Herriko Ostatuko ohiko saskiaren zenbaki saritua 9.542 suertatu da. Korta jatetxekoa, berriz, 320 zenbakidun txartelaren zain dago.

Aimar Maiz



Ordizia, Euskal jaiak (2001-9-5): Baztarrika: Gazta lehiaketa, 4. saria. **Bekoetxe:** Asteroko azokako barazki eta fruta lehiaketa, 4. saria

Beasain, Udazken kulturala (2001-11-6): Agerreberri: Postu onenak, 2. saria. Errezil sagarrak, 3. saria

Valladolid, "Cincho" Espainiako gazta txapelketa (2001-11-9): Baztarrika: 6 hilabetetik gorako ardi gazta, 1. saria

Eibar, San Andres (2001-11-30): Agerreberri: Fruta, 2. saria

Ormaiztegi, San Andres (2001-12-2): Agerreberri: Postu onenak, 2. saria. Tipulak, 1. saria

Zumarraga, Santa Lutzi (2001-12-13): **Bekoetxe:** Errezil sagarra, 3. saria. Sagar lote onena, 1. saria. Eskualdeko barazki lote onena, 1. saria. Fruta, 2. saria. Eskualdeko fruta lote onena, 1. saria. Eskualdeko errezil sagar lote onena, 1. saria. **Izar-aundi:** Errezil sagarra, 4. saria. **Agerreberri:** Errezil sagarra, 5. saria. Fruta, 2. saria. **Landeta:** Behorak, 1. saria. Moxalak, 1. saria. Abere lote onena, 1. saria

Urretxu, Santa Lutzi (2001-12-13): **Bekoetxe:** Barazkiak, 1. saria. Fruta, 2. saria. Eskualdeko barazki lote onena, 1. saria

Donostia, Santo Tomas (2001-12-21): Agerreberri: Fruta, 2. saria. **Bekoetxe:** Fruta, 3. saria. Barazkiak, 3. saria

Tolosa, Gabonetako azoka (2001-12-22): Oñatibi-txiki: Errezil sagarra, 2. saria. Postu onenak, 2. saria

Arrasate, Santamasak (2001-12-22): Agerreberri: Fruta, 1. saria

Ordizia, Gabonetako berezia (2001-12-26): Noare-etxeberri: Frutu lehorrak, 1. saria. Agerreberri: Fruta, 2. saria. Errezil sagarra, 2. saria

Elgoibar, Gabon Zahar peria (2001-12-29): **Bekoetxe:** Fruta, 2. saria. Agerreberri: Fruta, 3. saria

Deba, Zoro peria (2002-1-5): **Bekoetxe:** Fruta, 2. saria. Agerreberri: Fruta, 3. saria

Guztira

1. sariak: 13; 2. sariak: 13; 3. sariak: 6; 4. sariak: 3; 5. sariak: 1.



Ormaiztegi Giro ona Eguberrietako ospakizunetan

Aurtengo eguberri jaien inguruan prestaturiko ekintzak giro onez burutu dira. Eguberri jain atarian Txindata musika eskolako ikasleen kalejira izan genuen, herriko haur eta gaztetxoek kaleak musika giroz alaitu zituztelarik.

Gabon gaueko gertaera iragarritz egun guztian zehar herriko kale eta baserrietan asko izan ziren eguberri katez etxe eta kaleak alaitzen ibili zirenak. Amaieran guztiek batean eliz atarian eguberri kanten eskaintza egin zen.

Eguberrietako azoka

Abenduaren 30ean Eguberrietako azoka berezia ospatu zen herriko enparantzan. Artisautza lanen artean egurra, saskigintza, kandelak, lore lehorrak eta abar ikusi eta erosteko aukera izan zen. Bestetik Euskal Herrian ekoizturiko produktuak erosi ahal izan ziren besteak beste ezti, euskal pastela, Nafarroako kontserbak, etxean eginiko hestebete naturalak,

orein hestebeteak, ardoa, etxean eginiko gozogintza eta abar. Gainera Goierriko talogileek bertan eginiko taloak ere dastatzeko aukera paregabea izan zen.

Urte berriaren hasierarekin batera haurrek euroaren inguruko tailerrak izan zituzten, baita ipuin kontalariaren saioa ere.

Erregeen iritsiera

Eguberri jaiei amaiera Errege Magoen iritsierak eman zien. Iluntzeko zortziak aldera iritsi ziren Mendizabal gainetik herriko enparantzara hiru erregeak. Estalpean Aratz Lekue Albisu Ama Birjinaren lekukoak Unai Hernando Etxezarreta Jesus haurtxo bezala besoetan izan zuen, Iñigo Mendia Binagre berriz Aita San Joseren paperean izan zelarik. Hiru erregeek Jesus haurtxoari urrea, intsentsua eta mirra opariak eskaini zizkieten. Eskaintzen amaieran bertaturiko haurtxoen eskariak jaso zituzten, beraiek gozokiak banatu zizkietelarik.



Eskertzea

Urtero erregeen kabalgata antolatzeak suposatzen duen lana kontuan izanik lerro hauetatik bihotz bihotzez eskaini nahi zaie hainbat herritarrek borondatez burutzen duten lana.

Lehenik eta behin zaldien jabe eta eramaileek jaso bezate gure eskerrik beroena beraiek gabe horrelako erregeen etorrera antolatzea ezinezkoa izango bailitzateke. Hain zuzen Igara eta Aitzalde baserrietako herritarrei, Bi-Kabiko Legorburu sendiari eta Juantorena sendiari.

Bestetik urtero erregeak janzteko beraien etxeko ateari zabalik izaten dituzten Karteroneko Intxausti sendikoei, baita antortxeroak janzteko beraien baserria gure zerbitzura jartzen duten Mendizabalgo Baztarrika sendikoei ere jaso bezate gure eskerrik beroena.

Azken urte hauetan errege bezala ateratzeko laguntza paregabea eskaini izan duten Ander Legorburu, Igor Baron, Igor Juantorena, Iban Imaz, Asier Matallanes, Iker Garmendia eta Eneko Maizeri ere biziki eskertzen diegu izandako jarrera. Baita estalpea osatzeko partaide izan ditugun Iñigo Mendia, Aratz Lekue eta Unai Hernandori ere.

Ezin ahanztu dezakegu ere Guraso Elkartekoek eginiko lan goraipagarria ere, baina aipaturikoez gain asko izan dira artzain, antortxero eta beste hainbat erara parte hartu eta lagundu izan duten herritarrak ere. Guztiek jaso ezazue lerro hauetatik bihotz-bihotzez eskerrik beroena, aurtengo erregeen etorreraren antolakuntza era bikainez burutu izana zuei esker izan baita.

Aitziber Murua



Mutiloa

Abenduko azken bi asteetan izotz eta hotz gogorra izan dugu. Gurean aspaldiko urteetan ikusi gabeko ikuskizuna ikusteko aukera izan dugu, erreka izoztera ere iritsi baita. Honekin batera errepidea oso arriskutsu egon da eta ez da giro izan autoa hartzea ezta zutik ibiltzea ere. Makinatxo bat izan dira ipurdikoren bat hartu, hanka bihurrituren bat

egin edo autoarekin bazterra jo dutenak. Oraindik hasi besterik ez da egin eta ikusi egin beharko da ba, zer dakarkigun aurtengo neguak.

Gabonak kantari

Urteroko ohitura zaharrari eutsiz, abenduaren 24an, herriko talde bat, baserri base- rri kantari ibili zen.

Negu hasiera gogorra

Traste zaharren bilketa

Datozen hiru hilabeterako al- tzari, tresna elektriko eta ba- liorik gabeko traste zaharren bilketarako egunak honako hauek dira: otsailak 13 eta martxoak 13. Zerbitzu hau ja- so nahi duenak aldeztu aurretik 943161590 telefonora deitu behar da, trasteak zein puntu- tan utziko diren gogoratzeko.

Bola txapelketa

Urtarrilaren 13an jokatu da Mutiloko bolatokia Probin- tzia mailako txapelketa talde- ka. Goizean 9,30etatik 11eta- ra eta arratsaldean 4,30etatik 5,30etara.

Iñaki Ugalde

Oztopoen gainera peria aurrera

Izotza eta euria arerio gogorak izan baziren ere jende dexente hurbildu zen urteko azken peri berezira. Eguraldi txarraren ondorioz hainbat bidean geratu eta zenbait postu hutsik ageri ziren, hala nola oreinek ere Matximentatik eziñ izan zuten pasatu. Giro hotzarekin apurtu nahian dultzainajole eta trikitilariak hor aritu ziren. Enparantza Nagusiko lanak gelditu eta ohiko itxura hartu zuen egun horretan. Artisautza postuak eta fruitu lehorren erakusketa berfian izan ziren, Garagar-tzan asteazkenetako ohiko postuak, pilotalekuan, indioilar, oilo eta ahateak eta atarian bigantxa eta pottokak. Ahari erakusketarik ez da izan aurtengoan. Lehiaketetako irabazleen datuak 5. orrian daude.

Manuel Barandiaran berriro ere

Odolki lehiaketa zela eta protagonista genuen orain gutxi Manuel Barandiaran harakina. Oraingoan, berriz, txistorra lehiaketan aurkeztutako jeneroa izan da lehen saria jasoa duena. Euskal Herriko IV. Txistorra Lehiaketa jokatu zen Eguberriak aurretik herrian bertan eta 44 harakinen txistorren artean lehen saria Manuel Barandiaranentzat

izan zen. Eta hau gutxi balitz bigarren saria ere ordiziar harakin batentzat izan zen, Nikolas Lasarentzat hain zuzen.

Zinegotzi aldaketak

4 urteko legealdiaren erdia baino gehiago iragan denean, gure ordezkari politikoei dagokionez hainbat aldaketa eman dira dagoneko udal-txean. Ezker Batua eta PSE-EE alderdiek aurretik egin zituzten aldaketak eta oraingoa Batasuna eta EAJ/EA alderdien txanda izan da. Batasunako Izaskun Urrestarazuren lekua Amaia Izuetak hartu du eta EAJ/Eako Jesus Mari Aldaz eta Guzman Vazquezzen tokia Manuel Iturrioz eta Raul Lakallek hartu dute.

Igeriketa proba

Pronostiko guztiak betez faboritoek euren maila erakutsi eta marka onak eginez txapela soineratzea lortu zuten. Gabonetako nazioarteko igeriketa proba ikustera jende dexente hurbildu zen Majorira eta bertaratutakoak ez ziren damu izan. ETBk zuzenean eman ez bazuen ere ez zuen honek egun berezi hau ilundu. Gizonezkoetan lehia bizia izan zen Jorge Uribarri eta Christian Keller igerilarien artean eta azkenik, puntu gutxiren aldearekin lehena



Eguberrietako postal eta idazlan lehiaketa

Goiztiri AEK-k Jakintza eta Urdaneta-Oianguren ikastetxeetako ikasleen artean antolatutako Eguberrietako postal eta idazlan lehiaketak saridunak ditu jada. Postal lehiaketan bi ikastetxeetako 5, 6 eta DBH.1-eko ikasleek hartu dute parte eta postalaren azalak Eguberriekin zer ikusia izan behar zuen. Urtero antzera, makina bat lan aurkeztu ziren, maila handikoak gainera eta AEK-ko ikasleek epaimahai lanak egin ondoren hauen lanak saritu zituzten. Jakintza Ikastolako ikasleen artean DBH.1-eko Nerea Domaikarentzat izan zen lehen saria eta bigarrena, berriz, 5. mailako Amaia Basaurientzat. Urdaneta-Oianguren ikastetxeko lehen saria, aldiz, 5. mailako Maitane Alonsorentzat izan da eta bigarrena 5. mailako Jone Rodriguezentzat.

Idazlan lehiaketari dagokionez eta idatzi beharreko gaia libre izanik, lehen saria Jakintza Ikastolako Jon Artolarentzat izan da "Gaztetako denbora haiek..." lanarengatik, bigarrena Oianguren ikastetxeko Ander Bigurientzat "Nire aitona-ren kontakizunak" lanarengatik eta hirugarrena Jakintzako Irati Larrazarentzat "Isilik geratu" lanarengatik. Guztiak ere sari gisa Lazkaoko Gerriko liburudendan materiala erosteko tikeak izan dituzte.


gailendu zen. Emakumezkoetan, aldiz, Nina Zhivanvskaya alde handiagoz nagusitu zitzaizen Camelia Potec eta Beatrice Caslaruri.

Larrazko palan sarituak

Soraluze eta Berasategi III jubentzetan eta Arrieta I eta Andonegi lehen mailan Gipuzkoako txapeldun suertatu ziren Oiartzungo Madalensoro

pilotalekuan urte amaieran jokaturako finalean. Larrazko paletarekin aritu ziren bi bikoteak eta urte osoan zehar egindako lan onaren emaitza izan zen lortutako txapela. Gipuzkoakoa lortu ondoren Euskal Herriko txapela lortzeko abian jada ziren aurreko asteburuan bertan.

Aitor Calvillo



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gasa

Tel.: 943 16 12 77 Faxa: 943 16 09 33
Okorro 6 - behea ORDIZIA

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKIA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: € 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN

Urtarrilaren 13an astoa protagonista

XVII. mendeaz geroztik ospatzen da Lazkaon Astotxo Festa. Errege Egunaren ondorengo lehenengo igandea festa honek erreserbaturik du lazkaotarren egutegian. Lazkaok historian atzera egin eta herriko kaleetan Nazareteko Jesusen Egiptorantz egindako ihesa irudikatzen da. Egun guztian astoa izango da Lazkaoko protagonista. Goizeko hamarretan diana pasako da herriko kaleetan astoak lagunduta. 11:00etan meza nagusia ospatuko da zistertarren komentuan, Lazkaoko abesbatza ere egongo da bertan.

Eguerdian berriz, Gipuzkoako astorik ederrenak elkartuko dira Lazkaoko plazan hamabietan ospatuko den Gipuzkoako III. Asto lehiaketan parte hartzeko. Dotoreenak 300'51 euroko, 50.000 pezetako saria jasoko du; bigarrenak 150'25 euro, 25.000 pezetako eramango ditu eta hirugarren asto dotoreenak, berriz, 90'15 euroko, 15.000 pezetako diru saria izango du ordainetan. Halere, lehiaketara aurkeztu diren asto guztiek izango dute saritxoa: 36'06 euro, 6.000 pezetako eskuratuko dituzte.



Eta eguerdiko ordu batean, 150 gaztek Nazareteko Jesusen Egiptorantz ihesa antzetzuko dute. Zawopi taldeak antolatuko du kale antzerki berezi hau. Kaleak aintzitan bezala apaindu eta garai

hartako arropekin jantzirik, historian atzera egin dugula sinistaziko digute Lazkaoko gazteek, Jesusen Herodesengandik ihes nola egin zuen antzetzuz.

Oihana Sarasola

Irrati zaharren erakusketa

"Horrelakoxea zen irrati". Izenburu honen pean irrati zaharren erakusketa antolatu du Ansoategi Kultur Elkartek. 1924 eta 1960 urte bitarteko ehun irrati bitxi ikusiko ditugu erakusketa honetan, eta guztiak martxan.

Erakusketako irrati guztiak Julian Cordero oreretarrarenak dira, baina orain eta urtarrilaren 13a bitartean, Lazkaoko Kultur Etxean izango ditugu ikusgai. 70. hamarkadan hasi zen orereta hau irrati bilduma egiten. Espainiako irratiak ezagutzera eman ez zituzten albisteak ezagutu nahian, atzerriko irratiak, BBC edo Radio Paris besteak beste, entzuten hasi zen. Egun batean, Hego Amerikatik Euskadi Irratiak Erresistentziako gudariei egindako deia ere harriatu zuen uhinetan Julian Corderok. Irrati arrunt batekin hasi zen orereta hau atzerriko irrati emisorak entzuten; baina pixkanaka irrati hobea izateko grina eta afizioa piztu zitzaion. Geroztik bere altxorra handituz joan da, eta dagokieneko 100 irrati zahar ditu berean.

Aukera bikaina dugu zalantzarik gabe, lazkaotarrok urtarrilaren 13a bitarte-

an Kultur Etxean erakusketa hau ikusteko. Astegunetan 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik; eta asteburuan berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Gipuzkoako XI. arku tiraketako txapelketa

Urtarrilaren 19an, arratsaldean, Lazkaoko Joxemiel Barandiaran kiroldegian Gipuzkoako XI. arku tiraketako txapelketa ospatuko da. Txapelketa hau herriz herri pasatuz joaten da. Jeronimo Gallinak, antolatzaileetako batek adierazi digunez, arku tiraketa sustatzea dute helburu nagusi, eta horregatik erabaki omen dute aurtengoan Lazkao Gipuzkoako lehiaketarako: hemen ere kirol hau ezagutzera eman eta praktikatzeko grina piztu nahi dute.

Aurtengoan gainera, modalitate ezberdin ugari ikusi ahal izango dira batera lehiatzen. Kategoriei dagokionez ere, adin guztietako jendeak izango du Gipuzkoako lehiaketa honetan parte hartzeko aukera. Izen ematea ere doakoa da, horrela jende gehiago apuntatu da.

Parte hartzea ez bada ere, arku tiraketa ikusi nahi dutenek, eguerdiko 14,30etatik aurrera joan beharko dute kiroldegira. Lehiakideek beroketa izango dute lehenengo ordubete, eta ondoren, 15,30etatik aurrera, hasiko da lehiaketa. Gaztetxoek 30 gezi bota beharko dituzte 12 metroko distantziatik; gainontzekoek berriz, 60 gezi jaurtiko dituzte 18 metrotatik. Hasieran guztiak batera ariko dira arku tiraketan, baina gero eliminatuz joango dira, azkenean modalitate bakoitzeko Gipuzkoako txapelduna nor den erabaki arte.

Kiroldegiaren ordutegi berria

Joxemiel Barandiaran kiroldegiak ordutegi berria izango du hemendik aurrera. Astelehenetik ostiralera goizeko 7etan zabalduko dute, eta gaueko 9ak bitartean egongo da irekita, eguerdian ere itxi egingo da delarik. Larunbatetan, berriz, goizeko 9etatik ordu batera eta arratsaldeko 3,30etatik 19:45era egongo da zabalik. Igandean goizez izango da aukera, berdratzietatik ordu batera.

ZINEA

GOIENIZ

GOIENIZ

Urtarrilak 17, 'Requiem for a dream', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

LEGORRETA

Urtarrilak 17, 'Tigre y dragon', Herri Zinema, 20:30ean.

Urtarrilak 24, 'Los padres de ella', Herri Zinema, 20:30ean.

ORDIZIA

'Sin noticias de Dios',
Urtarrila k 11: 22:15
Urtarrilak 12: 19:30 - 22:15
Urtarrilak 13: 19:30 - 22:15
Urtarrilak 14: 19:30.

'2001: despega como puedes',
Urtarrilak 13: 16:45.



'Requiem for a dream'

Darren Aronofski
(EEBB, 2000)

Heroina, "argaltzeko" pilulak eta telebistako lehiaketak; hiru menpekotasun mota hauek dira istorio honen gakoa. Kontsumo gizarte hipergaratu baten menpeko hiru gaitz, eta sarean eroriko direnak: hiru gazte, eta sarean eroriko direnak: hiru gazte deserrotu eta haietako baten ama, bere telebista saio gogoenean "zoragarri azaltzeko, edozertarako prest dagoena. New York inguruan gabilta, amets amerikarra bizioan murgilduz bete nahi duten pertsonaien artean.

antzerkia

ORDIZIA:

Urtarrila 18, 'Comicologos' lana, Divertia taldearen eskutik, Antzerki Garaia programaren barruan, 22:15ean, Herri Antzokian.

musika

BEASAIN:

Urtarrilak 19, Garingo elizan, 'Iparraldea kantuz'. Pier Paul Berzaitz, Mai Elen Estekahandi eta Frantxoa Costeau.

erakusketak

BEASAIN:

Urtarrilaren 12tik ostarilaren 1era arte, X. Aterpe lehiaketara aurkeztutako lanak, Aterpe tabernan.

Urtarrilaren, Beloki Peñak antolatutako lehiaketako txirringulargazkiak, Zinema tabernan.

ORDIZIA:

Urtarrilaren 11ra arte, Paula Garaialde artistaren pintura erakusketa, Barrenan

Urtarrilaren 14ra arte, Palestinari buruzko erakusketa, Barrenan.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.


Urtarrilak 12-13: Arriola
(Plaza Nagusia - Ordizia). 943 882628.

Urtarrilak 19-20: Azpilikueta
(Kale Nagusia 18, - Beasain). 943 880152.

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24 ☎ 943 88 95 83 LAZKAO



MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Boni-etxe

igeltseritza orokorra

☎ 616 921 502 Oriako pasealekua, 12 BEASAIN

Orientazio jardunaldiak

Txindoki-Alkartasuna institutuan

Txindoki-Alkartasuna Institutuak bere urteroko orientazio programaren barruan, batxilergoko bigarren mailako ikasleen gurasoei zuzenduriko Orientazio jardunaldiak antolatu ditu. Jardunaldi hauen helburuak gurasoei bere seme-alabek etorkizunean burutu beharko dituzten ikasketei buruzko informazioa eskaintzea eta erabakia hartzerakoan laguntza ematea dira.

Lau hitzaldi izango dira, unibertsitate ezberdinetako irakasleek emanak. Elebietan izango dira hitzaldiak eta eskualdeko beste ikastetxe guztiei irekiak dira. Jarraian duzue egutegia:

● **Urtarrilak 15, asteartea:** 18:00etan, Txindoki Institutuko Areto Nagusian. Gaia: Euskal Herriko Unibertsitateko ikasketak.

● **Urtarrilak 16, asteazkena:** 18:00etan, Txindoki Institutuko Areto Nagusian. Gaia: Mondragon Unibertsitateko ikasketak.

● **Urtarrilak 17, osteguna:** 18:00etan, Txindoki Institutuko Areto Nagusian. Gaia: Deustuko Unibertsitateko ikasketak; eta 19:00etan leku berean, Nafarroako Unibertsitateko ikasketak.

Antzerki garaia Ordizian eta Beasainen

Urtarrilaren 18an hasiko da Antzerki garaia ziklo berria Beasaingo eta Ordiziako udalek elkarlanean antolaturik. Apirilean bukatuko da.

Umorezko bi antzezlanekin emango zaio hasiera. Urtarrilaren 18an, gaueko 10,5etan, Ordiziako Herri Antzokian, 'Stand up comedy' izango da Dibertia taldearekin. Urtarrilaren 25ean, Beasaingo Usurbe antzokian, gaueko 10,15etan, kabareteko giroa ipiniko du Psicosis Gonsales artistak, Lola Cea piano-joleak lagunduta. Gainerako antzezlanen berri ematen joango gara hurrengo aleetan.

Sarreraren prezioa 7 edo 9 eurokoa izango da, ikuskizunaren arabera. Taldeentzat salneurri bereziak izango dira, 5 eta 7,50 euro bitartekoak. Denboraldi osorako abonoa 48 euro kostatuko da. Abonoak Beasainen Udal Kultura Sailean eta Usurbe Antzokiko leihatilan eta Ordizian, Barrena jauregian eta Herri Antzokiko leihatilan eskura daitezke.



Zure etorkizuna EUSKARAZ



ESKAINNTZA

EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE maila guztiak, EGA.
Ikasketa bereziak eskariei egokituak.
Ordutegi zabala.
Beka sistema daukagu.
Berri gehiago, Udal Euskaltegian.

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 09:00-13:00
Arratsalde: 15:00-19:00.

MATRIKULATZEKO EPEA

Urtarrilaren 14etik 31ra
16 urtetik gorakoentzat.

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

Loinazko San Martin plaza, Kultur Etxea, 1.a • 20200 BEASAIN
Tel.: 943 028 100 • Posta elektronikoa: udaleusk_beasain@jalgi.com

Etxebizitzak

salgai

- ➡ Baserria salgai Ze-gaman. Terreno onekin. 943510851.
- ➡ Beasainen 2 logela-ko etxebizitza salgai. Eguzkitsua eta alaia. 943027138. 20:00etatik aurrera deitu.

konpartituak

- ➡ Madrilen ikasleekin etxea konpartitzen du-gu. Mutil ez erretzaile-ak. 914090390.

Garajeak

errentan

- ➡ Ormaiztegin garaje edo biltegia (itxia) alo-kairuan hartuko genuke. 943889900.
- ➡ Lokal edo garaje itxian alokairuan hartu-ko genuke Beasainen. 943028881. Jon.

salgai

- ➡ Beasainen garajea salgai, herri erdian. 943027947. Iluntzetan deitu.

Bestelakoak

salgai

- ➡ 3 urteko Rossignol eski para salgai. Fija-zioak estrenatzeko. 670428820.
- ➡ Eskiak salgai. 2 metrokoak. Volki mar-kakoak. Egoera onean. 15.000 pezeta edo 90 euro. 943886709 - 6463393334.
- ➡ Ibanez bajua eta Trace Elliot amplia sal-gai. Oso egoera onean. 620256197. 19:00etatik aurrera deitu.
- ➡ Salgai 2000. urteko VW Bora TDI baten se-rieko llantak (6 aspa, 16"x6,5) bere kubierte-kin /205x55x16). Egoe-ra onean. 330 euro. 943883164. Eguerdi eta gauetan deitu.
- ➡ Su egur iharra sal-gai. 943723504.0
- ➡ 'Jakintza bideak' entziklopedia salgai. 5 liburu. Euskaraz. Erabi-li gabeak. 943882467 - 626610384.
- ➡ Egongelako altza-riak salgai: 1,35ko sofa-ohea eta beste bi sofa, eta mahaia. 943885320.
- ➡ Sekadora besoekin eta tintearentzako bapo-rea salgai. 50.000 peze-tan. 943883180.

- ➡ Pentium 3 ordenado-rea salgai. 1.000 Mh. 40 Gb. Windows Millen-nium eta Office 2000. 80.000 pezetan. 943187706.

- ➡ Andregaiaren soine-koa salgai. 1999/2001 denboraldikoa. 42-44 neurria. Oso ondo dago. 943163013.

- ➡ Su egurra salgai. Merke-merke. 943885292.

- ➡ Egongelako egu-rrezko altzaria salgai. 211 cm-ko altuera, za-balera 172 cm-koa eta sakonera 40 cm-koa. Egoera oso onean. 678846282.

- ➡ Berogailu kaldera elektrikoa salgai. Zeus-Rab9 markakoa. Ordu programatzaile eta 9.000 watio arteko po-tentzia hautagailuare-kin. Enpresa, garaje eta antzeko lokaletarako aproposa. Bere erdi ba-lioan salgai. Jose Ra-mon. 943652878.

- ➡ Sutarako egurra sal-tzen da. 2 metrora moz-tua eta 5 pezetan kiloa. Xabier. 943885006.

- ➡ USB NGS 300/600 skanerra salgai. 10.000 pezetan. 619856033.

- ➡ K6-II 450 ordena-dorea salgai; 128 Mb ram, 15" monitore; Ri-va Tnt2 32 MbAGP; Samsung regrabadora, 8 x 4 x32x; Windows

- 982E (edo XP edo Li-nux Suse 7.0). 80.000 pezeta. 619856033

- ➡ Roland BM-100 ba-juarentzat 100 w bozgo-railua salgai (60.000 pe-zeta). Oso egoera one-an. 943880343.

- ➡ Hifi Philips minika-tea salgai, 50 + 50 W. 3 Cd, Bass Boost, Su-rround. 20.000 pezeta. 619856033.

- ➡ Baxu anplifikadorea salgai. Egoera onean. Gutxi erabilia. 943888309. (Gauetz dei-tu).

erosi

- ➡ Bigarren eskuko motokultorea erosiko nuke. 943883410.

- ➡ Bigarren eskuko futbolina erosiko nuke, handi xamarra. Norbai-tek horrelako bat balu edo non dagoen baleki deitu telefono zenbaki honetara: 943886461 (Josune).

- ➡ Gramateka deitu dudan kolekziorako erosiko nituzke: mundu osoko edozein hizkun-tzaren gramatikak, me-todoak, hiztegiak...; be-reziki greko eta latina-renak eta hizkuntza mi-norizatuena; eta azken hauen artean, batez ere, Ameriketako hizkuntza autoktonoenak. Misio-laria, bidaiaria, edozein zarella, harremanetan

- jartzeko hona nire tele-fonoa; 943213396.Jon. arnotegi@euskalnet.net.

- ➡ Euskarazko libu-ruak erosten ditut, 1950 aurrekoak. Gai guztiet-a-koak interesatzen zaiz-kit eta ondo ordaintzen ditut. Gotzon. 649699022.

Ibilgailuak

salgai

- ➡ Scooter motoa sal-gai. Aprilia SR50DI. Zozketan tokatua, berri-berria. 656415761.

- ➡ Seat Malaga 1.300 salgai. SS-AF. 72.000 km. ITV pasatuta eta aseguria abuzturarte. Oso ekonomikoa. 943887163.

- ➡ Peugeot 405 GR, 1.9, salgai. NA-X. Itxiera zentralizatua, kristal-jasogailu elektri-koa, lagundutako direk-zioa... Oso egoera one-an, beti garajejan egona. 200.000 pezetan. 655486022.

- ➡ Citroen ZX 16 AV salgai. 1995. urtekoa. Ondo zaindua, garajejan egona. 943084204. Gauetan deitu.

- ➡ Opel Kadet furgoneta salgai. ITV pasatu berria. 200.000 pezeta. 943187757.



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN



✓ **Aholkularitza**
juridikoa

✓ **Entrepesa**
zerbitzuak

✓ **Aseguruak**

GERTU ABOKATUAK

Tel.: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
Kale Nagusia, 2 **BEASAIN**

➔ Volkswagen Polo 1.9. diesela salgai. SS-AX. 5 urte. Oso egoera onean. 650213259.

➔ Renault 4 F6 salgai. SS-AB. 75.000 pezetan. 943886506. Gauez deitu.

➔ Nissan Capitone furgoneta salgai. SS-W matrikuladuna. 150.000 pezetan. 943161476

➔ Ford Scort autoa salgai. 4 urtekoa. Oso egoera onean. Extra asko (ABS frenuak, airbag, kristal-jasogailu elektrikoak, itxiera zentralizatuak, leiar tinta-tuak, musika ekipoa eta aleroi bikoitza). 657799068.

➔ Land Rover luzea salgai. SS-U. 943800174.

➔ Motorhispania RX Racin 50 zm3 salgai. Rodajea ondo egina. 3.000 km. Ondo zaindua eta berri-berria. Asegurua ekainera arte egina dauka. 943180360. Jokin.

Animaliak

salgai

➔ Ponny arrazako 2 zaldiko salgai. 943801811.

➔ 20 bat ardi salgai. Latxa arrazakoak. 943148341.

Galdutako objektuak

➔ Ormaiztegiko jaientan zilarrezko eskumuturreko edo pultsera galdu nuen. Kolorezko perlatxoak ditu. 943881401 - 943161286. Edurne. Sarritu egingo da.

Negozioak

errentan

➔ Ileapaindegia alokatzen da, ezin delako atenditu. 630818941.

Harremanak

➔ 70 urte inguruko gizon alargun euskaldunak, 60 bat urte inguruko emakume euskaldun baten adiskidetasun jatorra nahiko luke. Bingen. 687851713.

Lana

eskaerak

➔ Sukaldaria behar da Lazkaon. Interesatuak deitu: 943162523.

➔ Ataunen neska euskalduna behar da tabernan lan egiteko, arratsalde. 943180019.

➔ Klinika laguntzaileak, garbitzaileak eta sukaldariak behar dira. Kurrikulumak bidali: Eulen. Esteban Lasa kalea, 2. Beasain.

➔ Neska edo emakume bat behar da Ordizian 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943160292. 20:00etatik aurrera deitu.

➔ Emakume euskalduna behar da adineko emakume bat zaintzeko. 943161239.

➔ Gaintzan zerbitzari lanerako neska euskalduna behar da. 943889848.

➔ Neska edo emakume bat behar da Ordizian, etxeko lanak egiteko. Kontratua eta Gartzarte Segurantzak. 943888744.

➔ Sagardotegian lana egiteko zerbitzari euskalduna behar da. 943180119.

➔ Goierriko folk-zelta musika talde batek bi-bolin jolea behar du. 943888002 (gauez).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritzak

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

OKINDEGIKO 1. MAILAKO OFIZIALA
 Goierri. Erref. 68527/1

LAN ZIBILETAKO INGENIARI TEKNIKOA
 Donostialdean. Erref. 68028/4

ESKAPARATISTA
 Donostialdean. Erref. 67862/2

OFFICE 2000 IRAKASLEA
 Donostialdean. Erref. 67754/5

KALITATE KONTROLA
 Gipuzkoan. Erref. 67624/2



Goierriko Akademia integrala

Interneten: Kontsultatu irakasleari
 Beharrezko informazioa aurkitu
ikastekakademia@latinmail.com
<http://usuarios.tripod.es/ikastek>

Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120 BEASAIN

ESKOLA LAGUNTZA

- ✖ Goi eta maila guztiak
- ✖ Lehen Hezkuntza
- ✖ DBH, DBHO, Modulok
- ✖ Zikloak

IKASKETA ARAZOAK

- ✖ Errendimendua
- ✖ Ohiturak, metodoak
- ✖ Atentzioa
- ✖ Emozioen kontrola

GOIERRIKO UNIBERTISTATEA

- ✖ Marrazketa
- ✖ Fisika
- ✖ Matematika
- ✖ Teknologia

UNIBERTSITATE MAILA

- ✖ Enpresaritzak
- ✓ Kontabilitatea, kalkulua
- ✓ Fakturazioa, estatistika
- ✓ Matematika (finantzieroa...)

LOINATZ

Taberna Jatetxea

Bazkari, afari, ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27 BEASAIN



Argitarapen honen ediziozko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza



Aztiriarrak 1949an

1949an Arantzazun ateratako argazkia da. Aztiriarrak dira guztiak.

1. ilaran, goitik hasita, ezkerretik eskuinera: Ignazio Arsuaga, Ramon Agirre, Jose Antonio Zabaleta, Manuel Zabaleta eta Pedro Arsuaga.

2. ilaran: Maria Dolores Arsuaga, Don Migel Barandiaran, Anjela Zubia, Arantxa Iñurritegi, Pilar Imaz, Felisa Arsuaga eta Juani-to Imaz.

3. ilaran: Luis Gabiria, Dionisia Iztueta, Ramona Arriola, Donata Jauregi, Pilar Iñurritegi, Juan Jose Zabaleta, Genobeba Apaola-za, Maria Agirre eta Ana Mari Galdos.

4. ilaran: Joxe Mari Arriola, Joakin Iñurritegi, Fernando Agirre, Maria Garmendia, Juan Jose Deba, Genaro Agirre, Juan Jauregi, Patxi Agirre, Manuel Zabaleta, Pedro Esnal, Jabier Zabaleta, Bitor Gabiria, Jose Arsuaga, Jose Mari Agirre, Jesus Iñurritegi, An-paro Agirrezabal, Kandida Agirrezabal, Jose Goiburu eta Antonio Goiburu.

Argazki zaharrak behar ditugu atal honetarako. Harremanetarako telefono zenbakia: 943889612. Argazkiak itzuli egiten dira.

IBAi-ONDO
AROEZTEGIA

Koltxoak
Somierak

Sofak,
altzari mazizoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gaztainondoak

multisac
— SYSTEM —

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 **BEASAIN**
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 **ORDIZIA**

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lllantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa **IDIAZABALgo sarreran** ☎ 943 18 72 57

Giokela, Okel **G**arbia Muturretik Buztanera



Zer jan, hura izan.
Gure Kalitatea



Giokela, Berme Osoko Okela

Giokela, Kalitatezko Okela

LUIS MARI Harategia
Kale Nagusia, 15
IDIAZABAL

Ez guk, Certicar-ek ziurtatua



Gipuzkoa Buztanetik Muturrera.

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

kirola
atsegin
duzulako

...



...probatu!



Hamaika ordu telesbista aurrean,
partiduak, lasterketak,
norgehiagoak... Benetan gustokoak
dituzu? benetan? Nolatan ez duzu
orduan sekula zeure bizian
kirolarentzako tarterik egin?
Agian aukera emango dizun
zerbaiten beharrean zabiltza.
Antzizar kiroldegiak kirola eta
zerbitzuak zeuraganatzeko asmotan
dirau, zure bizitzak kirolaren
ikutua soma dezan. Zeure esku
dago.